


Mikel Antza

«Ez dut uste literaturaren bidetik heldu behar diogunik Euskal Herriaren askapenaren aldeko borrokari»



- **Nekazaritza-erregaiak** Elikagaien krisiaren faktore nagusietakoa
- **Amparo Lasheras** «Poliki-poliki, galdu egin da martxoaren 3ko borrokaren mamia»
- **Apirilak 14** Errepublikaren aldeko aldarria egingo du Nicolas Guerendiain elkarteak
- **Pasaiako portua** Azpiegituren gida-planak hutsune tekniko larriak ditu
- **Helduen euskalduntzea** Erretiroa, beste aukera bat euskarari heltzeko

Eneko Olza

GARAREN eroslea

«Non bestela
irakurriko ditut Iñaki
Egaña, Ramon Sola edo
Iñaki Iriondo?»

posible egiten du

GURE AHOTSA • GURE BALIOAK • GURE HERRIA

Berari esker lortzen dugu, eta berak bezala, GARA erosten duten milaka laguni esker, gure mezua egunero 243.000 lagunengana iristea. Bere konpromiso horrek egiten du posible existitzea bai egunkari hau, bai NAIZ eta gure ahotsa gero eta jende gehiagorengana eramaten duten beste euskarri guztiak.

Gure irakurleak ditugu sostengu bakar. Alde horretatik, hedabide bakarrenetarikoa gara. Eta independente egiten gaitu horrek. Gure hedabidea aurrera ateratzeko konpromiso irmoa dugu, errealitatea ulertzeko, aldatzen ahalegintzeko eta guztiontzako etorkizun hobea lortzeko lagungarria delako.

GUZTION ARTEAN POSIBLE EGITEN DUGU



Azaleko argazkia:
SUSA ARGITALETXEA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko apirilaren 14a, 2.364. zenbakia

ASTEKO GAIA

NEKAZARITZA-ERREGAIK Autoen egarria, milioika lagunengosea. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

AMPARO LASHERAS: «Kartzelak zirrara egin zidan, baina ez zidan konpromisoari eusteko indarra kendu». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIK

NICOLAS GUERENDIAIN ELKARTEA Edozein errepublikak ez du balio. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

BHUTAN Nekazaritza ekologikoaren alde, etikaz eta pragmatismoz. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 17

IRITZIAREN LEIHOA

CHAVEZ, HERRIAREN BIHOTZA ASIER BLAS MENDOZA / 18
GOHAINDIDURA BEA SALABERRY / 20

EITB: GAUZAK EZ DIRA ONDO EGIN JOSU AMEZAGA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Jakin-mina (I). IXIAR ROZAS / 20

BERTSO BERRIAK Corrugadosi jarriak. JOKIN URANGA / 21

ZIRTA Euskal kulturaren lege fisikoak. ANGEL ERRO / 22

ERDIKO KAIERA

MIKEL ANTZA: «Hizkiz hizki porlanak zultzeko grinak eramane ninduen idaztera». XABIER MONTOIA / 23

GUTUN ZURIA Idazlerik ez baita irakurlerik gabe.

MYRIAM GARZIA / 30

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ, MIKEL ASURMENDI / 32

MUSIKA OLATZ KORTA / 33

OSASUNA JABIER AGIRRE / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 37

TERMOMETROA

PASAIKO KANPO PORTUA Ingeniaritza kalkuluak ez dira zuzenak. URKO APAOLAZA AVILA / 38

HELDUEN EUSKALDUNTZEA Urteen ostean euskarari heltzeko unea. IURE EIZAGIRRE / 44

1936KO GERRA Perezagua bataloiko komunistak.

URKO APAOLAZA AVILA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL RQ-170 Sentinelek biharko gerrez iragarri diguna. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

NEKAZARITZA-ERREGAIK

Autoen egarria, milioika lagunen gosea

Klima aldaketaren aurkako borrokan arma bikaina izan behar zuten bioerregai deiturikoek –hobe nekazaritza-erregai esatea–, baina dagoeneko ikusten ari da haien aldeko apustuak ondorio kaltegarriak dituela, askok iragarri zutenez. Elikagaiak garestitzea eta hirugarren munduko laborariak beren lurak galtzea eragin dute Washington eta Bruselako politikek. Eta gainera, ez dira uste bezain arma bikaina klima aldaketaren aurkako borrokan.

| UNAI BREA |

ZAINAB KAMARA Sierra Leonako laborari bat da, baina une honetan ez du lurrik lantzeko, Addax Bioenergy suitzar enpresak kendu baitzion 2009an. Eta berari bezala beste milaka batzuei. Helburua 10.000 hektareako saila azukre-kanaberaz landatzea zen, bioetanola ekoizti eta Europara esportatzeko. “Lurrik gabe, jendea gosez hiltzen ari da”, dio Kamarak, “orain arroza erosi behar dugu bizirauteko, dagoeneko ezin baitugu guk geuk hazi”.

Historia triste horrekin hasten da GRAIN elkarteak berriki argitaratutako *Nekazaritza-erregaietarako lur pilaketari ez* izenburuko txostena. Kamararena ez da adibide bakarra; txosten horretan bertan, baita beste iturri askoren bitartez ere, Asia, Amerika eta Afrikan beren lurak galdu dituztenen hamaika testigantza aurkituko duzu. Nahi izatera, aldizkari honek joan den otsailaren 17an argitaratu emandako *Munduko laborariak lurra osten dieten lapurren galdezka* erreportajea irakur dezakezu, beren lurak galtzen ari direnen drama ondo ulertzeko.



Gosearen haziak

Nekazaritza-erregaien produkzioa ez da lur arpilatzearen arrazoi bakarra, baina bai nagusia. Oxfam elkartearen txosten baten arabera, azken hamar urteetan egindako lur pilaketaren bi herenen helburua nekazaritza-erregaiak ekoiztea izan da. GRAINEk dioenez, 2020rako nekazaritza-erregaien merkatua 172.000 milioi litroraino haziko dela aurreikusten da; horrek esan nahi du gaur egungo produkzio-mailari eutsiz 40 milioi hektarea gehiago bideratu beharko liratekeela xede horretara. Hau da, Addax Bioenergyk Sierra



Leonan egindakoa bezalako 1.100 proiektu. GRAINek berak emandako datuen arabera, 2002 eta 2012 bitartean izandako 293 lur-pilatzetan –hamazazpi milioi hektarea guztira– inbertsioaren egileek adierazi zuten beren asmoa nekazaritza-erregaiak ekoiztea zela.

Gosearen bazia du izenburua oraindik orain aipatu dugun Oxfamen txostenak. Honela dio haren aitzin-solasak: “2008an Europar Batasunerako bioerregaiak ekoizteko erabili zen azalera garia eta artoa hazteko erabili izan balitz, urte oso hartan 127 milioi pertsona elikatu ahal izango ziren”. Nekaza-

ritza-erregaiak gose iturri dira, eta ez bakarrik laborari askok, Zainab Kamarak bezala, beren lurak galtzea eragiten dutelako. Elikagaiak ekoizteko erabiltzen ziren lurak nekazaritza-erregaietarako erabiltzen hastearen ondorioetako bat da elikagai gutxiago egotea; beste bat, garestiagoak izatea. 2008 eta 2012 bitartean –eta batik bat bi urte horietan, hain justu– oinarritzko elikagaien prezioek gorakada nabarmena izan dute. FAOk, Nazio Batuen Nekazaritzarako Erakundeak, adierazi du garestitze horrek pobrezia eraman dituela 100 milioi lagun, eta Munduko Ban-



DR. WAGNER VENDRAME

kuak berretsi egin du datua. Hasierako eztabaidaren ostean, une honetan ia inork ez du zalantzan jartzen horren arrazoi nagusietako bat nekazaritza-erregaien ekoizpena izan dela, NBEko iturriek diotenez.

Nekazaritza-erregaien eta gosearen arteko lotura gero eta nabarmenagoa ikusita, NBEk, FAOk eta mundu osoko hamaika GKEk beren politikak aldatzeko eskatu diete erregai mota horien kontsumitzaile nagusiei: AEB eta Europa. EBk bederen, erantzun egin du eta hasierako helburuak apaldu ditu. 2008an onartutako 20-20-20 estrategiaren arabera, asmoa da garraioaren sektoreak 2020an kontsumitzen dituen erregaien %10 bioerregaiak izatea. Berriki, Europar Batzordeak proposatu du horren erdia —hau da, erregai guztien

Azken urteetan jatrofa da bioerregaiak lortzeko gehien landatu den landareetako bat. Jateko erabiltzen ez den olio ematen du, eta elikagaietarako ziren milioika hektarea bereganatu du.

%5— besterik ez izatea elikadurarako erabili ohi diren laboreetatik eratorria.

Urrats bat da, baina askoren iritziz ez da nahikoa. Ekologismoaren eta elikadura burujabetzaren alorretan diharduten elkarte gehienek eskatzen dute laborerik ez erabiltzea erregaiak egiteko, ezta EBk proposatutako %5 hori ere. Bioerregai terminoa ere errefusatzeko dute. “Espainiako Estatuan izen horrekin saltzen den erregai gehiena, %95 inguru, nekazaritzako produktuetatik dator, horregatik hobesten dugu nekazaritza-erregai izena”, diosku Abel Esteban Ekologistak Martxaneko kideak. Bioerregai izena merezi lukeen gainerako %5 hori dagoeneko sukaldetan erabili den olio birziklatua da. Alor horretan lanean dabiltzan enpresek kalkulatu dutenez, jaso litekeen erabilitako olioaren erdia besterik ez da jasotzen. Hala ere, kopuruak bikoiztea ez litzateke nahikoa nekazaritza-erregaien lekua hartzeko.

Garraio eredu osoa auzitan

Gai honi buruz Madrilen egindako jardunaldietan parte hartu berri zuela mintzatu ginen Abel Estebanekin. Bertan ateratako ondorio nagusietako bat izan zen ez duela zentzurik erregai fosilentzako alternatibez hitz egiteak gaur egungo kontsumo parametroetatik abiatuta. “Garraio eredu osoa aldatu behar dugu, eta gutxiago kontsumitu. Ez dago kapazitate biofisikorik nekazaritza-erregaiak petrolioaren ordezkatzeko. Planeta osoan ez dago laborantza lur nahikorik horretarako”, dio Estebanek. Dagoeneko hitz egiten da bigarren belaunaldiko bioerregaez, alegia, elikagaiak

Nouste Ekilili, nekazaritza-erregai eredu jasangarria

2006an ekilorea landatzen hasi ziren Lapurdi, Baxena-barre, Zuberoa eta Bearnoko hamar bat laborari, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen (EHLG) eskutik. Ordura arte artoaren monolaborantzan jardunak ziren, baina ekilorea landatzen hasteaz batera errota-zio sistema erabiltzen ekin ziren. “Gauzak horrela hobeki doaz, orain ongarri gutxiagorekin lan egiten dugu”, dio Mixel Lahetjuzan nekazari senperetarrak.

Pixkanaka laborari gehiago bildu ziren egitasmora. Azkenik, 2009ko abenduan, Nouste Ekilili kooperatiba sortu zuten —biarnesez “gure” esan nahi du *nouste* hitzak—; Senpere, Gabadi, Maule eta Nabarregose inguruetakoa hogeita bat etxalde zeuden ordurako proiektuan, guztira 80 hektarea eguzki-lore landatzen zituztenak. Halaxe jarraitzen dute gaur egun. Uztaren zati batekin janaria egiten dute ganaduarentzat, eta bestetik olio ateratzen dute, erregai modura erabil-

tzen dena. Zati bat euren traktoreetarako gorde eta gero, urtero 35.000 litro inguru saltzen diete, gutxi gorabehera erdibana, Bizi Garbia hondakin bilketa sindikatuari eta Ziburuko portuko bi arrantza-ontziri. Uztaren heren bat gordetzen dute oliotarako; normalean, hektareako 800 litro inguru.

Lahetjuzanek azaldu digunez, bai traktoreek bai Bizi Garbiaren kamioiek gasolio eta ekilore-olio nahasketa bat erabiltzen dute. Nekazaritza-erregai portzentajea %30 inguru izan ohi da, baina udan, bero handiagoga egiten duelarik, %50era igo daiteke. Ziburuko bi ontziek erregai arrunta behar dute motorra hotz den artean, baina gero ekilore-olio hutsarekin funtzionatzen dute. Orotara, kontsumitzen duten erregaiaren %80 da olio. Hori bai, hura erabiltzen hasi aurretik aldaketak egin behar izan zituzten motorretan. Horretarako, Frantziako Arrantza eta Laboran-

ez diren lehengaiekin egindakoez, baina horrelakoak kopuru nahikoan eta prezio egokian ekoizteko behar den teknologia ez dago, oraingoz, behar bezain garatuta, eta lehengaiak ez dira behar bezain ugariak.

Jatrofaren auzia

Nola lortu, orduan, bioerregaien erdia elikadurarako ez diren lehengaez ekoiztea? Europar Batasunak horretan amarrua egin dezaakeela ohartarazi du Abel Estebanek. Gakoa jatrofa da. Landare horrek jateko erabiltzen ez den olio bat ematen du; joan den hamarkadan itxaropen handiak piztu ziren haren inguruan: errendimendu gutxiko lurretan hazteko gai izango zen, ur eta ongari askorik gabe, eta olio tonaka emango zigun. Gerora ikusi zen, ordea, merkatuaren ikuspuntutik errentagarria izateko beste edozein laborek behar dituen gauza berak behar dituel jatrofak, lur ona barne. Hartara, hura ere elikagaietarako laboreei lekua kentzen hasi zen. GRAINek emandako datua da 2012ko abenduan bederratziz milioi hektarea zeudela jatrofaz landatuta, 130 lur-pilatzeren ondorioz. “Jatrofak ez du zuzenean lehiatzen elikagaiekin, baina bai zeharka, nekazaritzarako erabiltzen diren zoru berak behar ditu eta”, dio Estebanek. GRAINen kalkuluen arabera, Europar Batasunak erabakiko balu bere bioerregaien erdia jatrofatik ateratzea, 21 milioi hektarea beharko lirake helburu hori betetzeko soilik, eta hori lur emankorrenetako errendimenduetan oinarrituta egiten badugu kalkulua. Berdin dio landatzen denak jateko balio duen edo ez, lur pilaketak bere horretan segituko du.

INIGO AZKONA



Biodiesela eta bioetanola eskaintzen dituen Bizkaiko gasolindegia batean egindako argazkia.

Madrilgo jardunaldietan parte hartu zuten guztiak bat ez zetozen arren —nekazaritza-erregaien patronaleko ordezkariak ere izan ziren, besteak beste—, antolatzaileek behintzat garbi ikusten dute EB urrats bat harago joan beharko litzatekeela, eta ez lukeela nekazaritza-erregaietzat gutxieneko portzentajerik ezarri behar. Aipatu dugu dagoneko haien ekoizpenak zer nolako desoreka eragiten dion elikagaien merkatu globalari, baina bada ekologisten aburuz beste arrazoi bat, eta pisu handikoa: nekazaritza-erregaiak erabiliz Lurraren beroketa apaltzen dela esan ohi den arren, azken ikerketen arabera hori ez da egia.

NOUSTE EKILLI



Bizi Garbia sindikatuko kamioiek zein Noustek Ekiliko kooperatibako kideen traktoreek gasolio (%70) eta ekilore-olio (%30) nahastea erabiltzen dute erregai gisa. Eskuineko argazkian Mixel Lahetjuzan ageri da lanean.

tza Ministerioak eta Europar Batasunak diruz lagundu zieten; izan ere, landare-olioaren erabilpena ITSASOA izeneko proiektu-pilotuaren barnean kokatzen da.

NOUSTE EKILLI



Kontrakoa eman badezake ere, frantsesezko siglak dira ITSASOA: Itinéraire Technique de Substitution Agricole pour la Sauvegarde de l'Océan par l'Artisanat.

NEKAZARITZA-ERREGAIK

Erregai fosilak eta nekazaritza-erregaiak klima aldaketan daukaten inpaktua konparatzeko, EBk igorpen zuzenak hartzen ditu kontuan. Hau da, ekoizpen prozesuan igorri diren negutegi efektuko gasen kopuruak. Eta nekazaritza-erregaiena askoz txikiagoak dira erregai fosilenak baino. Alta, elkarte ekologistek diote —eta industriak ukatu— nekazaritza-erregaien benetako inpaktua neurtzeko ILUC deritzonak ere aintzat hartu behar direla.

Lurraren Erabilpenaren Zeharkako Aldaketa esan nahi dute ingelesezko ILUC siglek. Zer esan nahi duten ondo ulertzeko, balio beza Abel Estebanek emandako adibide honek: Europan erabiltzen den nekazaritza-erregai gehiena kanpotik ekarria da, baina zati bat bertako lehengaiekin egiten da. Batez ere, kontinentearen erdialdean hazten den koltzarekin. Lehen, koltzaren zati bat esportatu egiten zen, eta beste zati bat hainbat industriatan erabiltzen zen, elikagaienak zein bestelakoak. Orain, ordea, Europako koltza guztia erregaien ekoizpenera bideratzen da. Horrek esan nahi du lehen koltza baliatzen zuten industrietan beste nonbait bilatu behar dutela lehengaia. Batez ere palma oliora jo

“Garraio eredua aldatu behar dugu. Planeta osoan ez dago laborantza lur nahikorik nekazaritza-erregaiak petrolioa ordezkatzeko”

Abel Esteban, Ekologistak Martxan

dute, merkeena baitzaie, eta palma olio eskaria handitzeak eragin du Indonesiako baso asko eruziak izatea, haien lekuan landaketak jartzeko. Baso horietan pilatuta zegoen karbonoa atmosferara isurtzea bezalako ondorioei esaten zaie ILUC. Abel Estebanek esanetan, koltzaren, sojaren eta palmaren kasuan, ILUCak kontuan hartuz gero guztizko emisioak EBk ezarritako helburuetatik gora daude; izan ere, nahiko hurbil daude zenbait erregai fosilen igorpenetatik. Azpimarratzekoa da, Estebanek esanetan, 2010, 2011 eta 2012an Espainiako Estatuan erabilitako biodieselaren %90 soja eta palma olioekin egina zela.

Labur esanda, ILUCak kontuan hartzeak agerian utziko luke EBk jasangarritzat jo duena ez dela jasangarria. Oxfamen ustez, EBk ezarritako helburuak betetze aldera baso eta belardiak dauden lekuetan laboreak ipintzen baditugu, Europako errepideetan 26 milioi ibilgailu zirkulazioan jarrita bezainbateko kaltea egingo diogu ingurumenari. Eduardo Galeanok esan zuenez, “hondamendirantz goaz zuzen-zuzenean, baina arraioa, a ze autoetan!”. ■



Bi erreba

Chopin eta Xarpén

BERTSO MUSIKATUA
APIRILAK 28, IGANDEA
SUTEGIN, 19:00

Pianojolea: **Xabier Lizaso**
Bertsolaria: **Andoni Egaña**

noa!ua  

Sarrera: 10€ (Usurbilgo Txiriboga tabernan, Noa!ko egoitzan eta egunean bertan) Noa!ko bazkideek 8€ tan erosi ahal izango dute Noa!ko egoitzan aldezturik.

AMPARO LASHERAS

«Kartzelak zirrarara egin zidan, baina ez zidan konpromisoari eusteko indarra kendu»

Militante zen oinarrikoa. Plazara irteteko deia jo zutenean, plazara irten zen, egin behar dena egin behar den garaian egiten baitu militanteak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



1947an jaioa, gaztaro beteak harrapatu zintuen 60ko hamarkada beroak.

Gure familia gerra galdutakoa zen. Aitaita hil zenetik gurean ez zen hartaz askorik hitz egin. Tira, bazen osaba bat, anarkista, atertzen ez zuena. Zer edo zer bazen giroan, zer zen jakiterik ez bagenuen ere. Ama, esaterako, Otxandioko bonbardaketak harrapatu zuen. Handik Bilbora jo zuen. Carlton hote-

leko egonaldia kontatzen zuen, haurrak eba-kuatzeko itsasontzira sartzeko momentua...

Habana itsasontzira?

Baina gure aitonari ondoeza eman zion, eta zaintzan zegoen errepublikarrak adina galde-tu eta ez igotzeko esan zion. Ez ziren itsasontzira igo. Oinez itzuli ziren eta ezkutatuta eman zuten denbora. Amak ibilera horiek

AMPARO LASHERAS

kontatzen zizkigun, batzuetan. Beste batzuetan, guk galdetu, eta ez zigun ezer esaten. Aitonaren oroitzapena dut, kartzelatik gaixorik irten zela, tuberkuloso. Pasadizoak jaso nituen, harik eta 17-18 bat urte nituela puztuela osatzen hasi nintzen arte. Moja ikastetxera joan nintzen, eta han dena zen Franco, garai-ko heziera hura. Etxean, bestelakoa zen giroa: ez erlijio katolikoa ez beste. Zorionez, etxean ikusitakoak irabazi zuen borroka hori.

18 urte zenituela.

Bai, Piru ezagutu nuen, nire gizonetzkoa, eta haren lagunak. Horrek ere hainbat lagundu zidan ideiak ordenatzen. Lehen errefuxiatuen garaia zen Gasteizen... Orduantxe piztu zitzaidan kontzientzia politikoa. Tren baten kontrako atentatua izan zen, non edo non, eta jendea atxilotu zutela gogoratzen naiz, EAJkoak eta beste. ETAk ere zenbait liberatu zituen hemen, gero jakin dudanez. Mario Onaindia, esaterako, hemen zebilen. Sabin Arana Bilbao hemen tirokatu zuten, hemen hartu atxilo. Gure lagun handiena Frantzian bizi da oraindik. Ez da itzuli... Gogoan dut Arantxa Aretxandietak nola ihes egin zuen. Araban ere jo zuen errepresioak. 70eko hamarkadan Gernikan hil zuten gazte hura, Motriku [Jesus Maria Markiegi], hemengoa zen.

Gizarte laguntzaile ikasi zenuen lehenbizi, Kazetaritza ikasketak egin zenituen gero, Iruñean, 80ko hamarkadaren hasieran.

Gasteizen ikasi nuen lehenengo, baina ez zitzaidan gustatu gizarte laguntzaile zera hura. Helduentzako eskola batean irakasle lan egin nuen Abetxukon, Gasteizko auzoan. Geroago, ezkondu eta lan egiteko aukera izan nuen Iruñean. Lana eginez batera, kazetaritza ikasi nuen. Bi alaba nituen ordurako.

1976ko martxoaren 3ko sarraskiari buruzko liburua egin duzu berrikitan: *3 de marzo 1976* (Arabera, 2012). Artean sabelean zenuen bigarren umea, liburuan irakurri dugunez. Ez duzu denboran jauzi makala egin!

Kar, kar, kar. Gure bigarrenak hiruzpalau urte zituela joan nintzen Iruñera, bai. Martxoaren 3an esnatu nintzen, beharbada... Ordu arte, banekien pentsa nezakeela, iritzia eman, baina orduan jakin nuen beharrezkoa dela konpromisoa. Errealitatea antzaldatu behar dela, alegia, Marxek esaten zuenez. Martxoaren 3ak ezker, Amnistiaren Aldeko Batzordeetan hasi nintzen, eta handik hona oinarriko militantea izan naiz, besterik gabe.

Esaguzu sasoi hartan zer giro zegoen zure inguruan.

Martxoaren 3a baino lehen grebak izanak ziren Gasteizen, Michelinen batik bat. Gogoan dut, langileak Babesgabetuen Elizan sartzen, atzetik polizia saldoa zutela. Tartean berriz, Burgosko prozesua izan zela. Lehenengo manifestazioak izan nituen. Haietan bai, parte hartu genuen. Behin, hasi eta berehala, Jesus Obrero ikastetxe parean hasi behar izan genuen lasterka! Radio Paris entzuten genuen garaia zen, autoan sartuta. Gero, Txiki eta Otaegiren fusilamenduak.

Eta FRAPeko hirurak.

Bai, behin ere aipatzen ez ditugunak. Manifestazioak izan ziren orduan ere, baina oso txikiak. Beti betikoak ginen. Utzi ere ez zuten uzten manifestaziorik egiten, jakina. Irailaren 27ko fusilamenduak ziren garaian, haurdun nengoen, hiru hilabeteko, lehenengo alabaren esperoan. Andra Mari Zuria plazan ginela, polizia etorri eta gu San Migeleko eskailertan gora, jende mordo. Gure lagun bat harrapatu zuten, neska bat, hilabete eduki zuten barruan. Horrekin batera, gure lagun batek ihes egin zuenean, nire gizona soldadutza egiten ari zen. Bada, hartu eta ziegan sartu zuten soldadutza bukatzeko geratzen zitzaion denbora bukatu arte, urte eta hiru hilabete! Esan nahi dut martxoaren 3ko hura baino lehen bazela mugimendua Gasteizen. Kontzientzia eratzen lagundu zigun giro horrek. Aurretik, berriz, 68ko maiatza izan zen...

Horren berri heldu zitzaizun?

Zeharka bada ere, bai. Osaba-izebak nituen Parisen. Gure ama eta izeko bat haiek ikustera joan ziren zazpi eguneko asmoan, baina

NORTASUN AGIRIA

Amparo Lasheras Gainzarain (Gasteiz, 1947). Gizarte laguntzaile ikasketak egin zituen gaztetan, eta kazetaritzakoak geroago, 80ko hamarkadaren hasieran, ordurako alaba biren ama zelarik. Tartean, militantzia izan zen, eta 1976ko martxoak 3ko sarraskia Gasteizen. Amparo Lasherasen baita kontzientzia politikoa eta engaiamendua ernatu ziren garaia. Kazetari egin du bizia, bateko irrati eta besteko egunkari. Radio Nacional, *El Mundo del País Vasco*, Egin Irratia, *El Periódico de Alava*, ETBn... egin du lan, eta *Gara* egunkarian, InfoZazpi-n eta Hala Bedi irratian kolaboratzen du egun. *Una vida, una calle* eta *Gasteiz 3 de Marzo de 1976. Un recuerdo 25 años después* ditu liburuak, oraingo *3 de marzo 1976* baino lehen. Militante soil izan da, harik eta 2009an D3M mugimenduak Arabako zerrendaburu izendatu zuen arte. Horrek, eta ondoko kartzelaldiak aurpegia jarri zioten ordu arte sinadura huts zenari.



ezin izan zuten berehalakoan itzuli: maiatzak harrapatu zituen, bateko eta besteko grebak, eta hilabete geratu behar izan zuten han. Maiatza hartaz jakiteko irrika piztu zitzaidan, eta orduantxe entzun nuen Sartrearen izena lehenengo aldiz. Elementu asko dira jokoan, baina, azken finean, konpromisoa da gakoa. Pentsatu, hitz egin, iraultzaz gogoeta egin, garai hartako Kubako iraultza, Aljeriaren independentzia... Oso ondo dago horretaz jardutea, eta jarduten genuen, baina osagai guztiak dagokien lekuan jarri eta puzzlea osatzeko derrigorra da militantzia.

Martxoak 3ko sarraskiaren inguruan...

Horrek erabat lagundu zidan piezak bere lekuan jartzen. Orduantxe bai. Aurrekoak ez ziren mugimendu masiboak izan. Martxoak 3ko hura, aldiz, bai. Forjas Alavesas lantegiak grebarekin bat egin zuenean, orduantxe hartu zuen borrokak indarra. Dena dela, martxoa baino lehen ere gogoan dut, Gabonetan, langileak buzoak jantzita manifestazioan Gasteiz erdialdean. Gabonetatik martxora bi greba deialdi egin ziren. Industria gerarazi zuten, baina hiria ez. Martxoaren 3an, berriz, langileek erabat gerarazi zuten hiria. Gasteiz mutu geratu zen.

Isiltasuna, horixe idatzi duzu liburuan.

Erabatekoa. Manifestariak batean, poliziak bestean... Ez zen besterik ikusten. Inoiz ikusi dudana greba orokorrik orokorrena izan zen. Zenbait momentutan, inor ere ez zen ageri kalean. Gure amak esan zigun: "Gerra zibila gogorarazten dit isiltasun honek". Haize txikia zebilen, eta Foru kalean, adibidez, paperak zerabiltzan. Hiri desertua ematen zuen. Ez dut horrelakorik inoiz ikusi. Asanblada lan handia egina zegoen aurretik, jendearen kontzientzia ernarazteko.

Zer gertatu zen martxoaren 3aren biharamunean?

Asanbladari eusteko saioak batetik, atxilotetak bestetik... Nabes, Olabarria barruan... Isiltasuna, berriz, iraultzak dakarrena, nahi baduzu. Baina lorpenak handiak izan ziren. Sedizio akusazioa izan zutenak izan ezik, gainerakoan langile kaleratuak berriz hartu zituzten lanean. Ondoko bost urtean, lantegietako hitzarmenak ez ziren makalak izan. Ez zen izan "bost lagun hil dituzte eta kito!", ez. Langileen egoerak onera egin zuen. Sindikatu bertikalaren ordezkariak desagertu egin ziren, adibidez. Langile batzarrak aukeratu zuen ordezkaria. Besterik da Trantsizioak ekarri zuena: sindikatuak sortu ziren, batzarren ordezkariak hasi ziren lanean, CCOO eta UGTk bat egin zuten Trantsizio-

arekin... Poliki-poliki, galdu egin da borroka haren mamia. Sindikatuen burokrazia hor dago beti.

Martxoaren 3a iragana da, ahaztua?

Askok ahaztu egin du, urte askoan bazterrean utzi du. Martxoak 3 hura izan zela ere ahaztu egin behar genuela ematen zuen, orduko errebindikazioak, orduko borroka. Ezkutatu egin behar zela zirudien. Udalak ez zuen oroigarrikerik jarri nahi, poliziak egurra banatzen zuen, sindikatuak isilik, hedabideetan oihartzun txikia... Egun madarikatutzat zeukaten, iraultza txiki bat izan zenean! Horrela izan da urte askoan. Bestela da orain.

Martxoaren 3ko sarraskiari buruzko lan osoa da iazko urte hondarrean kaleratu zenuena. Dena dela, kazetari zara, *Gara* egunkarian zutabea idatziz kolaboratzen duzu astean behin. Nolako kazetaritza eginez hasi zinen?

Irratian hasi nintzen, kulturean, gizartean, politikan. Tartean, era guztietako erreportajeak egin nituen han eta hemen, bateko eta besteko egunkarietan, harik eta neuk pentsatzen nuena idazteko aukera eman zidaten arte. Egunkarian zortzi orduz lan egin dudana azkena, *Arabako Egunkarian* egin nuen, itxi zuten arte. Iritzi arduraduna nintzen. Berez heltzen da garai hori, hau da, albisteak kontatzetik egoerari buruzko iritzia ematera.

Zertan da kazetaria egun?

Boterearen mezularia da. Asko galdu du. Jende gazte asko ikusten dut, unibertsitatean, esaterako, kazetari irizpiderik ez duena. Guri esaten zigutena daukat gogoan: "Kazetariak jakin behar du zein izango den interesa piztuko duen albiste". Kalean zoazela albiste izaitea merezi duena ikustea. Kazetari irizpiderik gabe nekez emango duzu gertakari humano, politiko edo sozial baten lekukotasuna. Edo ikerketa kazetaritza: datu jakin batetik abiatu, eta ikerketa garatu. Uste dut hori galdu egin dela. Bestalde, prentsaurrekoak, politika albisteak... beti bat eta bera dira, ez dago nobedaderik!

Zergatik ematen dio beldurra politikariari egunkarietan azaltzea?

Batzuei beldurra emango die, bai, baina beste batzuk amorratzen daude bertan azaltzeko.

Gaizki azaltzea, esan nahi nuen.

Gaizki egin dutelako, dena delakoa. Gaizki egin dute eta badakite, kontzientzia dute gaizki gaizki egin dituztela. Hala ere, ezin okerra aitortu. Komunikazio bulegoak ere antolatuak dituzte, eta haietatik igaro behar ezer lortzeko. Igarobiderik ematen ez badizute,



AZKEN HITZA

Kaotikoa

“Kaotikoa naiz, eta horrekin geratzen naiz. Zoramen bat da, optimismoa eta esperantza ematen dizkidana. Gauzak ahazten zaizkit, bai, eta? Nire parterik humanoena da, nire akatsak”.

alferrik ariko zara, gehienez ere albiste izan den horren jakingarri teknikoak helaraziko dizkizute, alderdi humanoa zeharo ahaztuta. Horrek ez dio kazetaritzari laguntzen. Elkarritzeta eskatzen duzula, galderak bidali behar dizkiezu aurretiaz. Lotuta dute dena, ez dizute margenik uzten. Neke da.

Halako batean, politikaren lehen lerrora agertu zinen: D3M Demokrazia 3 Milioi plataformaren zerrendaburu izan zinen Araban, kartzelan egonagatik ere.

Beti izan naiz oinarriko militantea, esan dizut. Amnistiaren aldeko batzordeetan hasi nintzen, eta handik hona militante izan naiz era batera edo bestera. Alderdien ilegalizazioarekin hasi zirenean, aurpegia eman nuen, barrabaskeria itzela iruditzen zitzaidan egin nahi zutena. Gero, soslai ondo definitutako jende bila hasi zirenean, etorri egin zitzaizkidan, prentsaurrekoetan parte har nezan eta hau eta hura. Horrela, zerrendaburu jarri ninduten arte. Dena dela, eskerrak gazteak izan nituen inguruan, ni guztiz kaotikoa bainaiz. Askok lagundu zidaten gazteek. Haiek gabe ez nuke agendarik beteko! Militantziak eskatu zidan konpromisoa izan zen, ez besterik. Afixak itsastea egokitu zaidanean bezala. Hara, behin esan zidaten eta ez dago gaizki esana: “Militantea da egin behar dena egin behar den momentuan egiten duena”. Dela jendaurrean, dela gordean. Are gehiago Euskal Herrian.

Kartzelara eraman zintuen konpromiso horrek. Espero zenuen horrelakorik?

Ez. Atxilotu bezperan, notaritzatik irteeran, esan zidan lagun batek: “Ez zinen konturatu polizia besterik ez genuela inguruan?”. “Bada, ez!”, nik. Egin behar dudana egiten dut, ezker-eskuin edo atzera begiratzen ibili gabe. Plataforma osatu zenean, nire izena zerrendan jarriko ote zuten eskatu zidaten, eta baietz esan nien. Eta ez, ez nuen uste

Informazio instituzionala

“Niri ez zait gustatzen, aspergarria zait, baina badakit instituzioek egiten dutena kontatu behar dela, herritarrek horretaz jakin nahi duela, edo jakiteko eskubidea duela. Baina izpiritu kritiko handiagoa behar da. Instituzioen prentsaurrekoetara joan eta, askotan, ez dago galderarik. Kazetariak ez du politikaria estutasunean jartzeko, eta jarri beharko luke”.

nire pertsonari horrenbeste garrantzi eman-go ziotenik. Ez nuen kartzelarik espero. Horregatik eragin zidan hainbeste lehen egun haietan... Gaizki pasatu nuen, nire gizona zekoa operatzekotan ziren garai hartan. Alabak ere kezkatzen izango zirela bane-kien...

“Lehen egun haiek”, diozu.

Bai. Ez nekien zer etorriko zen, zenbat denbora egongo nintzen han. Pentsatzen hasita nengoan txipa aldatu beharko ote nuen, barruan egotera ohitu. Gero, Valladolidera eraman nindutenean, Gasteizko lagun bat gertatu zitzaidan han —horrek asko lagundu zidan—, eta txipa aldatzen hasita nengoenean, lehen hogeitun egun haietako ondoreza gaitutia nuenen, libre irten nintzen.

Libre irten bai, baina hiru urte izan zineten epaiketaren zain.

Bai. Ez ziren urte onak izan. Hala ere, prentsaurrekoetara joateko deitu izan nindutenean, edo agerraldiak egin genituenen, hantxe izan nintzen. Kartzelak zirrara egin zidan, jakina, baina ez zidan konpromisoari eusteko indarra kendu. Momentu txarrekin ere bizitzen laguntzen dizute. Barruan nengoela, gauza asko erlatibizatu nituen, gauza txikiak gozatu nituen: kartzelako patioan musika entzutea gustatu zitzaidan, liburu on bat irakurtzea, lagun batekin hitz egitea... Kanean zaudela preziatzen ez dituzun kontu txikiak estimatzen erakutsi zidan barruak, kartzelak. Eta pertsonak. Kartzelan topatu nituen kideak, adibidez, haien gozotasuna, haien indar ideologikoa... Pertsona horiek espezialak zaizkit harrezkero. Batzuk kanean daude, beste asko barruan, kanean egon behar dute. Parot doktrina! Aspaldi behar zuten kanean.

Lehentasuna da haiek ateratzea. Urtean behin kaleak betetzea ez da nahikoa, egunero bete behar ditugu! ■



NICOLAS GUERENDIAIN ELKARTEA

Edozein errepublikak ez du balio

Errepublikaren aldeko mugimenduek erreferentziatzat dute Irungo Nicolas Guerendiain elkarteak. Tradizio errepublikar handiko hiria da Irun eta sentimendu horrek batuta, memoria historikoa berreskuratzeko lanean dihardute bertako kideek. Monarkia ezabatu eta errepublika ezartzea dute aldarri, baina ez edozein motakoa, herritik jaioa baizik, benetako balore errepublikarretan oinarritua.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Elkarteak utziak



MIKEL GARCIA IDIAKEZ

BATETIK, erregimen politikoa aldatzea nahi dute elkarteko kideek, monarkia pribilegio eskandalagarriak dituen zaharkitutako eta iraungitako gobernu mota dela argudiatuta. “Espainiako Estatuan inposatutako monarkia dugu, Francok ezarria, eta gure estatu burua guk geuk bozaz hautatu nahi dugu”, diote. Abiapuntua hori izanik, herriaren errepublika aldarrikatzen dute, “esaten baita, adibidez, José María Aznar ere errepublikarra zela eta III. Errepublikaren lehenengo presidente izan nahi zuela, baina irudikatu zein eredu ezarriko zukeen, eskuineko errepublika batek ez du defendatuko guk eskatzen duguna, herriaren baloreak dituen”. Alegia, publikotasunaren defentsa, giza eskubideena, berdintasun soziala, independentzia judiziala, laiko-

Nicolas Guerendiain elkartean, bandera errepublikarra eta ikurrina atzean dutela, ezker-eskuin: Junkal Oiartzun, Mariabi Prieto, Tino Zamora, Yolanda Allende eta Francisco Lusa.

tasuna, lurra lantzen duenarentzat izatea, herriak bere patuaren jabe izateko eta autode-terminaziorako duen eskubidea... Espainiako Estatu II. Errepublikaren Konstituzioan jasotako oinarriak, azken finean.

Gaur egun puri-purian dauden gaiak direla uste du Junkal Oiartzunek: “Ikusi bestela hezkuntzan, osasunean... pribatua nola ari diren sustatzen publikoaren kaltetan, erlijioari ematen zaion boterea, hedatu den kapitalismo basatia eta hainbat lekutako latifundismoa, mugimendu independentisten aurrean monarkia nola erabiltzen duten Espainiako aberriaren batasuna irudikatze...”. PPK ezarri nahi duen hezkuntza eredu berria ere, Wert erreforma izenez ezaguna, esanguratsua da: eskulan otzan bilakatu nahi dituzte ikasleak, “kulturalak

beldurra ematen duelako, jendeak pentsatzea, bidegabekeriez jabetzea eta nola aurre egin jakitea arriskutsua da, ez zaie komeni jendea ondo heztea, baina kultura indartzea da errepublikaren funtsetako bat”, gaineratu du Tino Zamorak. “Oraintxe, beste kolpe faxista bat ari gara jasaten —dio Oiartzunek—, 30 urteotan lortzen joandakoa amen batean suntsitu dutelako eta beldurra sortu dute jendearen, lanpostua galtzeko beldurrez shock egoeran dago gizartea. Inoiz baino beharrezkoagoa da monarkia baztertu eta aipatutako balore horiek guztiak berreskuratzea”.

Helburu horrekin dihardute gure solaskideek, Oiartzun, Zamora, Yolanda Allende, Jose Manuel Alvarez, Francisco Lusa eta Mariabi Prietok. Nicolas Guerendia in elkarteak 65 kide inguru ditu eta 2005ean sortu zen. Urte hartan, jardunaldi errepublikarrak antolatu zituzten Irungo Kabigorri Ateneoan eta uste baino jende gehiago hurbildu zen. Halako elkarte baten gogoia eta beharra sumatu zuten, estatutuak idatzi eta lanari ekin zioten. Kideen sentimendu errepublikarra gertutik jaso da sarri, asko sufritu duten senitartekoak baitituzte gehienek, erailak, erbesteratuak, ondasunik gabe utzitakoak...

“Gora San Martzial laikoa!”

Nicolas Guerendia in aita Irungo lehen alkate errepublikarra izan zen, XIX. mende amaieran. Nicolas Guerendia in semea berriz, Irungo udal epaile aritu zen, eta herriko jaietan egiten den alardeko jeneral zela “gora San Martzial laikoa!” oihukatzeagatik kritika zorrotzak jaso zituen, garaiko hainbat hedabidetatik. 1936ko altxamendu militarren ostean, komandante izatera iritsi zen Rosa Luxenburgoko batailoian, Irungo defentsan borrokatu eta Guadalupeko gotorlekuan giltzaperatutakoak exekuta ez zitzaizkion lagundu zuen. Atxilotu zutelarik, norbait bazela eta ziur zen ez zutela hilko. Fusilatu egin zuten, ordea, eta aurretik, kaletik lotuta kolpatu eta torturatu zuten, biluzik. Makina bat dira 1936ko Gerrak utzitako antzerako historiak, Irun birrinduta geratu zen erabat —faxistek bonbardatu eta ondoren anarkistek erre— eta errepresio bortitza jasan zuten herritarrek —hildakoen gorpuak Hendaiako mugara arteko errepidean barreiatzen zituzten—.



Fusilatu eta hildakoen hobietan omenaldiak antolatzeaz gain (argazkian, 1936an Pikoketan hildakoei omenaldia, ia), bailaran egon daitezkeen hobie eta desagertutako senitartekoei buruz ikertzen dute.

“Ez gara oroitzapenez bizi, baina ahaztu ere ez da ahaztu behar”. Filosofia horrekin egiten du lan elkarteak, ezjakintasun handia dagoela iritzi baitiote. Historia modu partzialean kontatu dela kritikatu dute, seme-alaben testuliburuetan apenas eskaintzen diotela lekurik Errepublika sasoiari eta haren ezaugarriari. Eta familia askotan, gainera, isildu egin da iragana, beldurratik. Desitxuratu egin da historia, diote, “jendeari entzuten diozu ‘batzuen eta besteen aldetik’, ‘errepublikarrak ere...’; ez, errepublikarrek euren burua eta herriak bozkaturiko demokrazia defendatu zuten, faxismoak eraso”.

Mozioak, ikerketak, jardunaldiak... memoria historikoa berreskuratzeke

Memoria historikoa berreskuratzeke, ekintza ugari egiten ditu elkarteak. Fusilatu eta hildakoen hobietan omenaldiak antolatzeaz gain —urtero biltzen dira Pikoketako hobi aurrean, adibidez—, ahal duten neurrian ikertzen dute, bailaran oraindik ezkutuan egon daitezkeen hobien inguruan edota desagertutako senitartekoei buruz informazioa eskatzen dietenean. Aranzadi elkarteke Pako Etxeberriaren bitartez, pertsona bat kontratatzeke eskaera ere egin diote Irungo Udalari, bailaran egon daitezkeen hobiak ikertu ditzan. Izan ere, ezin da edozein lekutan zultu, probak behar dira, eta azaleratu gabeko hobien baten berri dakien jendeari deia luzatu diote, elkartearekin harremanetan jartzeke. 36ko Gerran hobi inprobisatuetan lurperatutako %10 edo gutxiago aurkitu dira, “gero eta zailagoa baita, paisaiak aldatu dira, errepideak egin dituzte, eta Memoriaren Legeak dio Estatuaren ardura dela, baina trabak baino ez dituzte jartzen eta senideak ari dira ikertzen eta lan hori egiten. Eta zein da arazoa? Tartean epailerik ez dagoela hobia azaleratuz gero, ez duzula ordain ekonomiko eta moralentzako eskubiderik”.

Argentinako epaile batek frankismoaren krimenen aurka jarritako kereila babesteko mozioa Udalera eraman zuen abenduan Bilduk, elkarteak

eskatuta. PPren abstentzioarekin eta gainerako alderdien aldeko bozarekin, aurrera atera zen mozioa. Bilduren bidez, frankismoan Irunen fusilatutako guztien omenezko monumentua jartzeke udal aurrekontuetan diru-partida gordetzea ere lortu dute, “lotsagarria delako halakorik ez egotea oraindik herrian, beste leku

“Errepublika uste baino lehenago iritsiko dela uste dugu, baina daukagun beldurra da errepublikaren eredia eurenganatu eta herria engainatzea, edukirik gabeko errepublika ezartzea”



Aldarrikapen martxa eta festa igandean

APIRILAREN 14AN Errepublikaren Eguna ospatzeko, prest dute dena Nicolas Guendiaín elkarteak. Euskal Herrian errepublikaren alde egiten den festa bakanetako da eta seigarren edizioa dute dagoeneko. Urtero legez, martxa errepublikarrak zeharkatuko du Irun, hiriguneraino, eta bandera errepublikarra jasoko dute ondoren,

musika bandak eta txalaparta soinuek lagundurik. Hitzaldia ere eskainiko dute. Azken bi urteetan, zintzilikatutako bandera lapurtu dute, gauez; “faxismoaren astinduak dira eta negargarria da bandera errepublikar batek ordezkatzaren dituen baloreen eta horiengatik borrokatu duen jendearen aurka joatea”. Urdanibia

plazan, Moskun, jarraituko du jaiak: besteak beste, graffiti txapelketa, xake jokoa, argazki eta literatura lehiaketa, II. Errepublikako olerkien erakusketa, umeentzako jolasak, liburu azoka, Irungo musika taldeen emankizuna eta ‘Egin tiro fatxari’ postu bitxia izango dira, Rouco Varelari edo erregeari pilota bota nahi dionarentzat.

askotan dagoen moduan”. Ekimen sinbolikoetatik harago, liburu aurkezpenak, dokumental emankizunak, erakusketak, hitzaldi-eztabaidak eta jardunaldiak antolatzen dituzte, Errepublika aroko zinemaz, olerkigintzaz edota prentsaz, emakumeaz, abortuaz –Empar Pineda izan zen hizlari–, krisiaz, autodeterminazio eskubideaz, laiktasunaz...

III. Errepublikaren Aldeko Sarea

Euskal Herrian ugaritzen ari dira errepublikaren aldeko elkarteak. Tolosa, Sestao eta Errenteriatik, adibidez, himnoaren partiturak eskatu dizkiote Nicolas Guendiaín elkarteari, aurten lehen aldiz apirilaren 14an bandera altxatuko dutela-eta, herri horietan. Gipuzkoan eta Nafarroan dago mugimendu gehien. “Sartagudako parkea, adibidez, izugarria da, oilo-ipurdia jartzen zaizu”, azaldu digute. Hain zuzen, nafarrak dira III. Errepublikaren Aldeko Sarearekin bat egin duten euskal udalerrigehientsuenak. 2007an Andaluzian jaiotako

sarean parte hartzen duten euskal udalerriak hamalau dira, guztira: Oibar, Orkoien, Atarrabia, Irurtzun, Altsasu, Berriozar, Antsoain, Agoitz, Zangoza, Ondarroa, Pasaia, Tolosa, Eibar eta Baztan. Zertarako balio duen sareak? “Ezer ez baduzu egiten, ez duzu ezer lortuko, urratsez urrats indarrak batzen joatea da asmoa”, erantzun digu Mariabi Prietok.

Oraintsu arte tabua zena, kalean eta hedabideetan eztabaidagai da egun, eta errepublika ez dute urrun ikusten Nicolas Guendiaín elkarteak: “Errege-etxea lotsagabe eta lapur koadrila bat dela ikusi da eta guk uste dugu baietz, errepublika iritsiko dela, uste baino lehenago, agintariei eurei jada ez zaielako monarkia interesatzen, baina daukagun beldurra da errepublikaren eredua eurenganatu eta herria engainatzea, edukirik gabeko errepublika ezarriz, itxuraz baino ez, eta berdinetan geundeke, hori ez da benetako errepublika”. ■



- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia
 ☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadrabus.com

BHUTAN

Nekazaritza ekologikoaren alde, etikaz eta pragmatismoz

2020. urtetik aurrera Bhutanen nekazaritza ekologikotik datozen fruta eta barazkiak bakarrik ekoiztuko dituzte. Neurri hori hartuko duen munduko lehen herrialdea izango da.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

ORGANIKOA BAKARRIK, praktikotasunagatik eta arrazoi filosofikoengatik. Bhutango nekazaritza ministro Pema Gyamtshok esplikatu zuen otsailean, Indian antolatutako Garapen Jasangarriari buruzko Goi Bileran: “Lurralde menditsua da gurea. Gai kimikoak erabiltzen ditugunean ez dira gelditzen erabilitako lekuan, urari eta landareei eragiten diete. Ingurumen guztia kontuan hartu behar dugula uste dugu”. Hori dela-eta, pestizidak eta herbizida kimikoak galaraziko dituzte hemendik zazpi urtera.

Neurri horrekin elikagai gehiago ekoiztea ere espero du Gobernuak, eta kalitate hobekoak izatea. Horretan datza erabakiaren alderdi pragmatikoa: inguruko herrialdeetara gehiago esportatuko dutela uste dute Bhutango agintariek, besteak beste elikatzekeo sabel asko dauzkaten Indiara eta Txinara.

Ministro izateaz gain nekazaria ere baden Gyamtshok, nekazaritza organikoa bakarrik erabiltzeak denbora beharko duela adierazi



du: “Ezin dugu egun batetik bestera egin. Eskualdez eskualde joango gara, kimuz kimu”.

Erronka garrantzua izango dela adierazi du. Beste bat, 2008an monarkia absolututik sistema monarkiko parlamentaria pasatu zen 750.000 biztanle inguruko estatuarentzat. Herrialdearen garapena klima aldaketa bezalako gaiekin lotu zuen laborantza ministroak eta

bereziki nabarmendu zuen energiaren eta elikaduraren alorrean burujabe izateko premia.

Duela 30 urte eskas zabaldu zizkion atea Bhutanek nazioarteko kapitalismoari eta geroztik garapen bidean diren beste herrialde askotan sortu diren problemak azaltzen hasi dira: nekazaritzan jardun nahi ez duten gazteak atzerriara joaten hasi dira –Indiara batez ere–, eta kontsumismoaren eskutik masakultura zabaltzen hasi da. Nekazaritza ekologikoaren aldeko erabakiarekin garapen eredu propiorako urratsak eman nahi dituzte. ■





irudimena.com

Sormen lehiaketa | 3. edizioa

1

Soinu bat aukeratu
irudimena.com web orrian

2

Soinu bat, testu bat edo irudi bat sortu

3

Bidali!
irudimena.com gunetik

Sari frango irabazteko | Martxoaren 1etik maiatzaren 15era

azkue

fundazioa

eke-icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

hogeita

SOINUMAPA.NET



DANI BLANCO

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Chavez, herriaren bihotza

EZKERREKO ideologia desberdinetatik maiz entzun ditut Hugo Chavezen aurka-ko sasi-kritikak, haren moduak ez zituztelako gustuko. Aukeran nahiago dituzte jatorri aristokratiko eta burgeseko Salvador Allenderen modu “europarrak” edo Markos azpikomandanteak egiten dituen zurientzako diskurtsoak. Halere, kontua ez da Chavez gure gustukoa izatea, venezuelarrena baizik. Gure mentalitate inperialista mutur horietara ere ailegatu da.

Urteetan eskuineko hedabideek zein *progreek* erakutsi digute burgese jatorria duen ezkerreko buruzagi bat gorrotatu dezaketela ideologikoki, baina zaila da hori arlo pertsonalera eta kulturalera eramatea (batzuetan goraipatu egingo dituzte pertsonaiaren gustu kulturala edota bere ezagutza maila). Chavez, aldiz, ez dute soilik ideologikoki gorrotatu, berarekiko klase gorrotoa eta arrazakeria erakutsi

esker, egungo Venezuelak ez du zerikusirik orain dela hamalau urtekoarekin. Iku-sezinak ziren horiek, Chavezek ikusarazi egin ditu duintasuna, eskubideak eta botoa erabiltzeko kontzientzia emanez. Lehen hauteskunde-erroldeetatik kanpo zeuden herritarrek inskribatzeko kanpainak egin dira, prozesua erraztuz eta automatizatuz.

Horrez gain, Chavez tokian tokiko erantzun eraginkorra izan da neoliberalismoaren eta inperialismoaren kontra. Hasieratik garbi izan zuen Latinoamerikako herrialde bakoitzak bere bidea urratu eta proiektu soziopolitiko propioa eraiki behar zuela. Lula, Correa, Kirchner, Castro, Morales, Mujica eta bidean topatu dituen ezkerreko agintari guztiekin —bere aliatuak— hiru puntu komun partekatu ditu beti: herrialdeen independentzia formala erreal bilakatzea, integrazio latinoamerikarra bilatzea eta klase apalenen bizi baldintza duinen aldeko borrokan aritzea.

Bestalde, hutsuneei begiratzen badiugu, Chavez kontzientea zen Venezuelaren arazoez. *Golpe de Timón* liburuan Ministro Kontseiluan eman zuen azkeneko hitzaldia jasotzen da. Horretan, ezkerreko agintariek eta politikariek egin ohi ez duten tamainako autokritika egin zuen: “Ez diezaigun izan beldurrik kritikari, ezta autokritikari ere. Horrek elikatu egiten gaitu, beharrezkoa dugu”. Esan eta egin, besteak beste, honako gaiak mahai gaineratu zituen: klientelismoaren eta chavismoaren inguruan hazitako burgesiaren arriskuak; egitura komunitario sendoen falta eta beharra; jabego soziala eta egitura ekonomiko berria bultzatzearen premia; ustelkeriaren arazoa eta gobernuaren eraginkortasun falta; eta, agintarien eta herritarren arteko harremanak kritikatu zituen hertsia goak izan zitezen.

Halere, arazoak arazo, erronkak erronka, Chavezek Venezuelen lortu duen eraldakuntza soziala, ekonomikoa eta kulturala sekulakoa izan da, gauzak aldatu daitezkeela frogatu du eta hori ez da gutxi. ■



Chavez ez dute soilik ideologikoki gorrotatu, berarekiko klase gorrotoa eta arrazakeria erakutsi dituzte jatorri umilekoa izanagatik. Izan ere, badakite deskalkifikazio ideologikoen soilik ez zutela funtzionatuko Chavezen aurka, herri xehea berarekin identifikatzen baita

dituzte jatorri umilekoa izanagatik. Izan ere, badakite deskalkifikazio ideologikoen soilik ez zutela funtzionatuko Chavezen aurka, herri xehea berarekin identifikatzen baita.

Botoen %36a lortu zuen Allendek. Urrun, oso urrun Chavezek lortu zituen emaitza arrakastatsuetatik. Txileko presidentek fenotipoki, klase ikuspegitik eta kulturalki gutxiengo pribilegiatua ordezkatzeko, Chavezek aldiz gehiengo islatu du. Agian horregatik aurre egin ahal izan zion hedabideen deskalkifikazioari eta manipulazioari. Herriko klase apaletatik jaiotako semea zen eta hauen zerbitzura jarri zuen bere karrera politikoa. Horri



Arrisku Saria murriztu eta
finantzaketa bideragarria
lortzeko estrategia doitzen
jarraitzen du Gobernuak

doitzen
ala
doitxen?



Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA ♦



JAKES LARRE

Gohaindidura

GOHAINDIDURA –goragalea– sentitu nuen, lagun batek, solasen harira “homosexuala bainaiz”, bota zidanean.

Isildu nintzen, ez baitzen deus erratekorik. Irudikatu nuen gure herriko karta postaletako paisaia batean kokaturik eta zein izan zitekeen haren egunerokotasuna, beste hainbesterena bezala. Duela zenbait aste bozkatu denentzako ezkontzaren legetik landa bide baitugu egiteko, homosexualen kasutik haratago ere, edozein pseudo-desberdintasunen normalizazioaren bidean, gizarteak ezarri muga guziak bukatutzat eman artean.

Gizarte honek ez du deus gordetzen, isiltzen aldiz franko, eta artaldearen kodeen arabera bizi ez denaren egunak neke bilakarazi ditzake: zaila da herri zenbaitetako komunitate konformista baten aldean bizitzea. Dorpea. Beltza, homosexuala, ama bakarra, independentista, errefuxiatua, kanpotarra eta noizbait jarri eredu baten arabera bizi ez den orok sufritu beharko du: auzoak barrandan, irri gizen eta finezia mikorik gabeko solasak, zernahi bazterketa. Batzuetan etxekoek ere erruki gutxi ukanen dute: “Horrela ezin da, honela behar da, zer erranen du jendeak?”. Etxetik urrun, hirietako anonimatuaren babesean badirudi errazagoa dela; ikus eta sinets.

Gizarte honek ez du deus gordetzen, isiltzen aldiz franko eta artaldearen kodigoen arabera bizi ez denaren egunak neke bilakarazi ditzake: zaila da herri zenbaitetako komunitate konformista baten aldean bizitzea

Gure lurraldeak eta gizarteak leher egiten segitzen duten bitartean (horretaz kontziente izanik, paradoxikoa da) beste mendeetako hariak ehuntzen jarraitzen dugu: izaki eta jarrera uniformeak, koardotik ateratzen denaren gaitzespen kontsentsuala, estandar guziekin bat eta moldean junt-junta egotea-

ren ilusioa. Nahi ala ez, ispilu erraldoian, gizarteak jadanik marraztu du zure itzala, perfektuki, arkatx beltzez, mugatzaile eta mingarri. Beste gisaz azaltzeko, kapa beltz handi bat bezalako da, beste gauza batzuk ez bezala transmisioan gutxitan huts egiten duena, integratzen, garatzen, eta sinpleki, bizitzen uzten ez duena, bere baitan oratzen gaituena, galipot tona bateko geruza baino astunago.

Luzaz segituko du batailak, herri honi bidea egiten uzten ez

dion kapa horretaz libratu artean, gure haurrek ez ditzaten bizi behar ukan.

Azkenean, kasik errazki uros bizitzea lortzen du *Amaia Ezpeldoik!* Ez? Kasik libre ematen du. Bederen, bere baitakoa izatea lortu duela dirudi, norbaitek ontsa tinkatu korapiloen askatzen denbora pasa ordeztu betiko *Martin Larralderen* kopletan gatibaturik gaudekeenek ez bezala. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

Jakin-mina (I)

PEDAGOGIAREN etimologian bi azalpen ditugu; greziarra “umea zuzentzea, bideratzea” edota latineko *pedaticum* hitza, “bidesaria edo ordainlekua”. Zeinek ordaintzen du, bidesaria zeharkatzen duenak edo atzean geratzen denak? Zein da gastua? Zeinek galtzen du? Zein da galera horren benetako dimentsioa? Besteen galera ulertzen ikastea eta ulermen horren kostua kalkulatzeko, irudimenaren pedagogi moduko bat izan daiteke. Irudimenak ere besteen mina erakusten digu.

Eskolaratzeak bideratzea dakar egun, gure gizarteak sortutako bide zuzenetan jartzen ditu umeak. Des-eskolatu kontzeptua

ez da eskolatzearen kontrakoa. Ivan Illich-ek honela azaltzen du: hezkuntza ez uztea eskolaren esku soilik, bizitza osora hedatzea. Bizitzaren esparru guztiak prisma honetatik begiratzen baditugu, konplexuagoak egiten zaizkigu haren tolesdurak, gure umeak ez ditugulako jada pedagogiaren esku norabide bakarrekoan uzten. Horrek ere mina ekar dezake, bizitzaren eta jakintzaren muinean ere mina dagoelako. Eta ezin dira mina eta galera ulertu, hauek ekar dezaketen gozame- na begiratu gabe. Irudimenez, jakina. ■



INIGO AZKONA



Josu Amezaga

♦ EHUko IKUS-ENTZUNEZKO

KOMUNIKAZIO IRAKASLEA

EITB: gauzak ez dira ondo egin

BARKA NAZALA irakurleak, baina neure ohiko joeraren kontra ezkortasunez ikusten dut EITBren etorkizuna, Zuzendari Orokorra izendatzeko izan diren mugimenduen ostean. Aspalditxotik nabarmena da irrati-telebista publikoak gogoeta sakona, itun zabala eta zuzendaritza sendoa behar dituela. Komunikazioaren parajeen gertatzen ari diren eraldaketa asmagaitzek; azken urteetan izandako desatxikimendu sozialak, bereziki euskarazko katean (inoiz baino euskaldun gehiago dagoenean); edo egoera ekonomikoak ezarritako diru sarreraren gainbeherak (%28) horretara eraman beharko gintuzkeela pentsa liteke. Alabaina, ez dirudi behar den tokian asmo hori oraindik bereganatu denik. Honaino ekarri gaituen bide berean jarraitzen dugu; baina baldintzak lehen baino dezente okerragoak dira.

Zuzendari Orokorra izendatzeko gehiengo absolutua lortzeko prozesutik ondorio bi baino ezin dira atera: edo hitzarmena lortu duten alderdiak bat datoz EITBren ereduari; edo ereduaren inguruko gogoetarik gabe egin da hitzarmena: bata zein bestea porrot eginiko eredu berrestea lirateke. Gauzak beste modu batean egin zitezkeen, itun zabaloak lortuz. Komunikazioaren alorrean dagoen lehia eta aldaketa ikaragarriaren aurrean, EITBk beste medio askok eman ezin dutena eskaini behar du atxikimendua lortzeko: askoren arteko adostasunetik sortutako proiektu

tua izatea da, asmo horretan, baliorik handiena. EITB guztiona dela erakusten duen itunaren gainean eraikitako medioa, alegia, eta ez batzuen tresna politikoa.

Zuzendaritza Orokorren izendapenaren inguruan ordea, erabat kontrakoa erakutsi da: akordio mugatua, gehiegizko presa, inprobisazioa, interes politikoa, eta are komunikabide publiko batean sekula onartu ezin daitkeen zerbaite: kazetari baten betoa, lehendakariari eginiko elkarrietzak kritiko batengatik. Honek ez dio zuzendaritza berriari indarrik emango, kontrakoa baizik, indarra eta babes behar dituen une kritiko batean. Serioski hausnartu beharra dugu EITBz, tresna garrantzitsuegia da herri honentzat arduragabekeriak edo alde bakarrekiko interesez jokatzeko.

Sinetsita nago lehen oker zegoena gehiago okertu dela

Honaino iritsita nire ezkortasunari ñabardurak jarri beharrean nago, joera naturalari bide emanez. Sinetsita nago lehen oker zegoena gehiago okertu dela azken asteetako gertaerekin, eta hori argudiatzen saiatu naiz. Horrek are esfortzu handiagoa eskatuko digu EITBk euskal gizarteari egiten dion baino askoz ekarpen handiagoa egin diezaiokeela uste dugunoi. ■



BERTSO BERRIAK

Corrugadosi jarriak

Jokin Uranga



Doinua: Mutil koxkor bat.

Urte askoan gurea izan da abundantzien bailara zenbat familia joan ote da orain langabeziara? Mahaian dago eztabaidagai zer ginen eta zer gara alfer alferrik izango dira hemen ERE eta Hara! Mentalitate aldaketa bat ematen ez baldin bada!

Gallardo jaunak esan zuenez hemen nahi zuen arriska baina bidean galdu du nonbait zeukan duintasun pixka niki laranjak jada bihurtu dira langile gorritz ta... nahiz ta kexatzen garenoi deitu ohi diguten terrorista hemen hiltzaile bakarra dago: Sistema kapitalista!

Eta sistemak beti bezala bere bidea hartu du batzuk lepoan duten korbatan itotzea nahi gaitu gu. Saia gaitezen antolaketan eskuz esku buruz buru eredu berri justuen bila bizitza duinak helburu gugatik inork ez du egingo geuk egiten ez badugu! ■



Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Euskal kulturaren lege fisikoak

SARASOLAREN LEGEA. Kultur eztabaida bat luzatu ahala, partaideetako batek besteari elitismoa aurpegi-ratzeko probabilitateak batera joateko joera du.

Azalpena: Gorka Bereziartuak ARGIAko bere blogean *Problematizatu* izeneko sarrera bat idatzi zuen, lehenagotik zetorren idazleen eta bertsolarien arteko talka jasotzen zuena. Bi egun geroago, artikulua izan zituen erantzunen harira, Beñat Sarasolak honako txioa bota zuen: “Elitismoa, kultur eztabaidetako Godwin legea”. Godwinen legea aski ezaguna da; Interneteko eztabaida bat luzatu ahala, Hitler edo naziak argudiotzat erabiltzeko aukerak handitzen direla dio, eztabaida bertan behera utzi behar izanda. Nik hemen Sarasolaren formulazioa zehaztu besterik ez dut egin, egon ez bainago lege honekin ados. Euskal kulturan, behintzat, ez da betetzen.

Gurean, elitista akusazioa lehen ezten-kada izaten baita lehia dialektiko batean, Bereziartuaren artikulua erantzunek berek frogatzen dutenez. Erantzun horiek beraiek halaber erakusten dute zein den euskal kultur eztabaidetako benetako Godwin legea. Hortaz, zuzenduko dut lerroburu-ko legea.

SARASOLAREN LEGEA (BIRFORMULATUTA). Euskarazko kultur eztabaida bat luzatu ahala, partaideetako batek besteari garagardo bat hartzeko (eta eztabaida beste noizbait jarraitzeko) proposatuz eztabaida eteteko probabilitateak batera joateko joera du.

ANIZTASUN IRRIKAREN PARADOXA. Uniformetasunaz gogaituriko talde batek kanpotik etorritakoa taldera dakarren berrietasunagatik pozik hartzen duen aldi berean, delako berrietasuna neutralizatze-ko mekanismo hertsagarriak abiarazten ditu, beti-berdinaren gogaitasunean betikotzeko.

GUTXITUEN ORIGINALTASUNAREN HASTAPENA. Hizkuntza gutxitu batean idazteak originala izateko probabilitateak areagotzen ditu.


Azalpena: Beste batek idatzitako zerbait “erabiltzen” badut, aipamena egin beharko dut edo ingurukoek deskubrituko dute, lehenago (egilea nabarmena bada) edo beranduago (egilea ez-deusa bada). Plagioak gutxitik nagusira, gaztetik zaharrera, iraganetik orainera baino ez du funtzionatzen. Euskaraz formulatu dudanean lege honek, bere zabalkunde berez mugatuagatik, aukera asko ditu niri egotzi ez eta nire izenarekin inoiz bataia ez dezaten, baizik eta sistema/hizkuntza handiago batean formulatzen duenaren izenarekin, bere originaltasun falta, jakitun zein oharkabea, inork sala ez dezan aukera (zenbat eta gutxituagoa ni, orduan eta) handiagoekin. Horrela, gainera, Stiglerren legea beteko zen (“ezein aurkikuntza zientifikok ez du jasotzen hura deskubritu edo asmatu duenaren izena”).

Txikiok asmamen handiagokoak, sorkuntzan askeagoak, izatera behartuta gaude. Hau lotzen dut Sai-zarbitoriak inoiz kultura txikien abantailez esandakoarekin.

ERROREEN AXIOMA. Akatsak ez dira existitzen.

Azalpena: Eredutzat hartu ohi den James Joyceren *Ulysses*-en bertsioan bost mila akats omen daude. Bertako pertsonaia batek, idazle handi bat gogoan, dioena Joyceri ere aplika geniezaioke: “Jenioek ez dute okerrik egiten: beraien akatsak nahitakoak dira beti eta aurkikuntzaren bat badakarte”. Aipua ezagutu aurretik, “akatsak ez ei dira existitzen, / gehiago dira jainkoen mintzoa” idatzia nuen olerki batean, nire ustez, gauza berbera bestela adieraziz. Susmoa lege edo axioma bihurtzera ausartu eta, oraingoan bai, hari nire abizena emateko atrebentzia har-

tzeagatik barkatuko zaidala espero dut. Arestian aipatutako Stiglerren legea hausteagatik. ■



Antton Olariaga




«Hizkiz hizki porlana zulatzeke grinak eraman ninduen idaztera»

Atzerri liburua argitaratzear zela jo genuen Xabier Montoiarengana. Idazle eta musikari kasketa erantzi eta kazetariarena jantzi zezan eskatu genion, aspaldiko lagunari galdeketa zorrotza egin ziezaion. Bide luzea egin zuen gestioak, gorabehera handiak izan ziren, baina hementxe duzu azkenean.

| XABIER MONTOIA |

Argazkiak: Susa argitaletxea



Zerk eraman zaitu *Atzerri* idaztera?

Halabeharrak eta baldintzapen askok bat egiteari esker sortu da *Atzerri*. Egoera politikoa izan da baldintzapen horietako bat. Bat-batean atzera begiratzeko posturan aurkitu nuen nire burua. Gure herria askatzeko borroka beste aro batean sartu berritan, nire engaiamendua nola gertatu zen, zer nintzen edo zer izan nahi nuen begiratzen jarri nintzen. Garaitsu horretan berrartu nuen Eneko Olasagastirekiko harremana ere, *Barrura begiratzeko leihoak* proiektua zela eta. Iraganari behako bat ematera jarri eta hara!, zurrunbiloak hartu ninduen. Hizkiz hizki porlana zulatzen aritzeko grinak ere eraman ninduen idaztera. Ihesaldi literatura, kasu honetan ez

errealitatetik at, baizik eta jendartera murgil egiteko. Ingurune antzu eta irentzaile honetatik zerbait eder eskaintzeko beharrez.

Zein izan da *Atzerri* idaztearen prozesua?

Prozesu gozatsua izan da. Ia berez sortu zaidan liburua. Kontakizuna, egitura, idazkera, abentura eder bat izan dira niretzat, baita inguruan izan ditudanentzat ere. Oraindik ere bada plazer iturri, irakurleen berriak jasotzen ditudan bakoitzean. Aise aritu naiz idazten, kontatu nahi nuenaren mugarriak finkatu ostean, askatasun erabatekoa eman diot nire buruari. Idazketan sufritzen hasten nintzen bakoitzean banekien oker nenbilela, eta bertan behera uzten nuen. Ez dut esan nahi liburua erditu bitartean tinta izerditu ez dudanik.

Zenbaterainoko garrantzia izan zuen egiazki Iban Zalduaren aipuak liburua abiarazteko orduan?

Aipu hori *Istripu* atalaren iturburuan dago. Eta liburuaren baitan *Istripu*-k garrantzia handia du kontakizunaren hari-mutur nagusia baita. Aipu horrek eramaten nau atzera begiratzera. Iraganarekin elikatzen dugu gure oraina. Idazle izan nahi nuen nerabezarroan, idazle izan nintzen gaztaroan eta gero idazteari utzi nion. Hori nola gertatu zen begiratu nahi izan dut liburu honetan. Euskal Herriaren askapen borrokaren ahalegin kolektibo horretarainoko nire ibilbidea berrikusi, aztertu eta eskaini. Murgil egin nuen uneraino. Zipriztin batzuek ere busti dituzte orriak. Eta amaitzeko, aipu horren galderari erantzun moduko bat, ezin dugu jakin zer izanen zate-



keen euskal literatura Mikel Antza sasia desagertu ez balitz, bizitza orainaldian dago, etorkizunera begira, gertatutakoak gertatuta, igarotako denbora igarota, beste galdera bat da *Atzerri*, ezer ahanzi gabe: izan al naiteke oraindik izan nahi izan nuen idazle hori? Ba

“Ezin dugu jakin zer izanen zatekeen euskal literatura Mikel Antza sasia desagertu ez balitz. Beste galdera bat da *Atzerri*: izan al naiteke oraindik izan nahi izan nuen idazle hori? Ba al dut zer eskaini euskal literaturari? Merezi ote ahaleginak?”

al dut zer eskaini euskal literaturari? Merezi ote ahaleginak?

Nobela eliptikoa dela esan zenuen aurkezpenean, gauza batzuk kontatu ezin direla iruditzen zitzaizulako.

Nobela eliptikoa da borrokan engaiatu nintzen geroztikoez arlo pertsonal hertsia gainditu eta beste lotura eta ondorio batzuk dituztelako. Norbanakoa eta taldeari buruzko aurre hausnarketa dago liburua moldatzeko orduan. Nolabait esateko “Antzaren ibiliak” agertzen dira, ez besterik, eta klandestinitatean girotutako pasarteetan muga hori gainditzen dudanean isilpean gorde beharrekorik ez salatzeko moduan egiteko kontu handiz ibili naiz. Ez dakit zifretan neurtu daitekeen, zer den kontagarria edo kontatzea merezi duena. Batez ere, zertarako kontatu, hori da kontua nire ustez. Zeintzuk min eta arrazoi azaleratu nahi ditugun, zein helbururekin. Sasiko pasarteak atzerrian kokatu ditut, berariaz, lehen lerroa dei genezakeenetik aldenduta. Ez dut uste gehiago hurbil gaitzekenean oraindik. Are gutxiago fikzioaren bidetik. *Atzerri*-k hartzen duen denbora tarte horretan gertatutakoak garrantzi eta eragin handiko kontuak dira Euskal Herriaren historian, gutako bakoitzaren bizitzan. Ez dut uste literaturaren bidetik heldu behar diogunik, baizik aurrez aurre, mozorrorik gabe, zintzotasunez.

Idazle izan zena berriz idazle bilakatzea, horra nobelaren hari nagusietakoa, nagusia ez bada. Jadanik lortu duzu idazle sentitzea?

Irakurleengandik jasotako iritziekin idazle sentitu naiz, bai. Herrenik handiena euskararen ezagutza daukat.

Idazten ari nintzela ohartzen nintzen, nahiz eta askatasun osoz aritu, muga bat nuela, ez nintzela gai nahi nuen guztia adierazteko. Joskera eta hiztegi aldetik hutsuneak ditudala jabetzen naiz. Nahiz eta ahalik eta giro euskaldunenean bizitzen saiatu naizen, atzerrian eta kartzelan benetan zaila da. Hizkuntza erabiltzen ez bada, atrofiatu egiten da. Ikustaldietan edo etxartean, kideekin baino ez dut euskaraz hitz egiteko aukera. Frantziako Maison d’Arrêteetan asko jota hiruzpalau ordu pasatzen dugu ziegatik kanpo, gainontzeko denbora isilean bakarrik ematen dugu. Erdal-mortu honetako euskal ur tantak *Berria* eta ordu zehatzetan Euskadi Irratia dira. Bi urte eta erdiz beste euskal presorik gabe bakartuta eduki gintuztenean, funtzionario, polizia eta

epaileekin euskaraz egiteko erabakia hartu nuen, beste kideekin elkartu gintzaten eskatzeko ez ezik euskara entzuteko. Aurtengo urrian bederatzi urte beteko ditut baldintza hauetan. Beraz, etengabe ari naiz idazteko darabildan tresnaren mantenu lanetan.

Protagonista nagusiaz gain, beste zenbait pertsonaia ere ageri da kontaketa hari desberdinetan, sasia bizi direnak. Zure alter egoak al dira horiek ere?

Badute niretik zerbait, noski, baina ez dira nire alter egoak. Protagonista nagusia ere ez da zehatz-mehatz nire alter egoa. Nintzen gaztearekin kontu batzuk kitatzeko ere baliatu dut liburua. Kokoteko goxo batzuk emateko.

“Sasiko pasarteak atzerrian kokatu ditut, berariaz, lehen lerroa dei genezakeenetik aldenduta. Ez dut uste gehiago hurbil gaitzekeenik oraindik. Are gutxiago fikzioaren bidetik”

Atzerri irakurri duten batzuentzat nolabaiteko memoria liburua da. Beste batzuentzat, aldiz, ipuin liburua. Liburuan bertan, esku artean duena nobela bat dela esaten zaio irakurleari. Seguru al zinen hasieratik nobela bat idazten ari zinel?

Nik ez dut nobela idazteko metodorik ezagutzen. Tira, nobela bat idatzi asmoz hasi naizen bakoitzean amaitzeke utzi izan dut. Aurrerago bertan behera utzitako eraikin horietako baten edo besteren lehengaiak baliatu izan ditut, beren lekua aurkitu dute naturalki, *Goldorak* atalak *Atzerri*-n bezala, sortzez beste nobela bateko zati izanik. Zorrotz errespetatu beharreko araurik ez dago nobela bat idazteko. *Ospitalekoak*-ekin ere, baina batez ere *Atzerri*-rekin nobela deritzon genero horrek askatasun erabatekoa eman dit niri. Are gehiago, aski mugapen baditut bestela espetxeko egunerokotasunean. Erabateko libertatea eman didan eremu bat aurkitu dut, arnasa egiteko. Beraz, ez nin-

tzen nobela idaztera jarri, idaztera baizik, eta idatzitako kontakizunek beren lekua aurkitu zuten egitura baten baitan. Helmugara iristean *Atzerri* nobela zela esan zidaten, eta ni oso poztu nintzen idatzitakoak lehen irakurleengan sortzen zuenarekin.

Aldez edo moldez zeure burua nobelako protagonista kokatzeak ez al du exhibizionismo arriskua? Deserosotasunen bat sortu al dizu horrek?

Badu exhibizionismo arriskua, bai, nire buruaz ari naizen neurrian. Hirugarren pertsonan pertsonaia mozorrotzeko hautua ere banuen nik, ez dut egin, nire ustez esan nahi nuenak lehen pertsonaren zintzotasuna

behar zuelako. Kontakizuna aurrera doan heinean bigarren eta hirugarren pertsonaren errekurtsua erabili dut, nintzen harengandiko urruntzea nolabait islatzeko. Presoari kartzelan bere intimitatea erauzten zaio: gutunak fotokopiatu eta irakurri, ikustalditik itzuleran eta ziega miaketen ostean biluzarazi; niri dagokidanez, *Détenu Particulièrement Signalé* (DPS) gisa sailkatuta naukaten neurrian, zaindarien kaier batean idazten dute niri buruzko guzti-guztia, nolako aldarrez jaiki naizen, nola itzuli naizen ikustalditik, norekin mintzo naizen, noren gutuna jaso dudana, gutunik jaso ez dudana egunean zapuztu ote naizen, nori idatzi diodan. Horretara ez naiz ohitzen, deserosotasuna eta amorrua eragiten dit, umiliazioa da aldiro. Hondartza nudista batean biluzik egotea eta jantziak banan-banan eta mehatxupean emanez larrugorritan gelditzea ez dira berdinak. Gaurko gizarteko farfilla eta mozorrokeriaren aurrean, non hitzek berek ere gardentasuna galtzen duten, biluztasuna baino antidoto hoberik ez dagoela uste dut. Norberak bere



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

baitarik hitz egin behar du, bere egia esan behar du, zintzoki, bestek berdin egin dezaten espero gabe, besterengan ikusi uste ditugun maltzurkeria eta jukutriak azpimarratzen eta salatzen denbora eman gabe.

Ez al zaizu meta-literatura nekagarri samarra gertatzen, honez gero?

Meta-literatura nahitaezkoa zuen *Atzerri*-k idazle edo idazle-gai bati buruzkoa den neurrian. Erreferentzia izendatuak eta ezkutukoak daude liburuan, baina ez dut uste liburua ulertzeko ezinbestekoak direnik, apaindura gisa edo begi-kliska gisa daude, girotzeko eta protagonistaren literaturarekiko harraren berri emateko. Nahi bada, idazleen munduan ate-joka dabilen denbora luzeko langabetuaren kredentzialak erakusteko ahalegin erridikulutzat ere har daitezke *Atzerri*-n agertzen ditudan idazleen aipamenak.

“Protagonista nagusia ez da zehatz-mehatz nire alter egoa. Nintzen gaztearekin kontu batzuk kitatzeko ere baliatu dut liburua. Kokoteko goxo batzuk emateko”

Céline maiz ageri da. *Atzerri* zure gauaren azken muturrerainoko bidaia dela esan liteke?

Ez. Inolako loturarik gabeko pertsona izan behar da horretarako. Ez da nire kasua. Nik konpromiso oso argiak ditut eta konpromiso horiek ezartzen dizkidaten mugak ere oso argi ditut. Célinek egin zuena egiteko jendar-teagandiko urruntasun eta ausardia handia ere behar da. Eta oso-oso idazle ona izan, hizkuntza menderatu. Gurea bezalako jendarte txiki batean ez dakit horrelako zerbaite-rako aukera eta beharrik dagoen. Ez gaude hain lazgarriki bakarrik, mundu guztiarekin puntu horretaraino suminduta eta gorrotoz beteta. Gainera, euskararen baitan erabateko erosotasunez ibili beharko litzateke, irakur-leagandiko hurbiltasuna galdu gabe jendarte-ko erregistro desberdinak erabiliz. Euskal Herriari gagozkiolarik bertako hiru hizkun-tzen erabilpena lotsagabe eta diglosikoa kon-tuan hartu, mugak erakutsiz eta hautsiz. Ez dakit interesik lukeen, ezta zein funtzio bete-ko lukeen horrelako obra batek.

Atzerriaz eta kartzelatu aurreko garaiaz dihar-duzu. Aurreko liburuetan (*Ospitalekoak*, *Bakar-mortuko kronikak*...), bestalde, kartzelaz aritu zinen, zein izango da erabiliko duzun hurrengo gaia? Jarraituko al duzu zure biografiari lotuta-ko beste kontuekin?

Atzerri-n ere kartzela sartu zait bal! Eta nahiz

eta ihes egiten saiatu, presoan ametsetan bezala azkenean harrapatu nau. Ez dakit zein izango den hurrengo liburuaren gaia. *Atzerri* tarteetan sartu zenean banituen bestelako proiektuak idaz-lantegian. Ez dakit zer nola-ko aukera izango dudán idazten jarraitzeko, nire bizipenen berri emango dudán, mugak muga, gaitasunik izango dudán Euskal Herriaren iraganari begiratu sakonagoa ema-teko, gogoa dudán arren.

***Atzerri*-n Salgari aipatzen duzu eta zuregan lite-raturarekiko maitasuna pizteko idazle horrek izan zuen garrantzia. Salgari aspaldiko kontua da zuretzat (gogoan dut aspaldiko *Susa* batean egin zenuen haren itzulpentxoak), baita geroago aipatzen duzun Pellot pirata ere. Ba al duzu aurrerantzean horretaz idazteko asmorik?**

Hain zuzen ere, Pellot piratari buruzko elebe-rri bat idazten ari nintzen Mont-Blanc Pala-cera eraman gintuztenean. Nahiko aurreratu-ta nuen eta nire asmoa zen Donostiako piratei ematea, beren abordajearen parte har-tuz, inbidiaz ikusten baitituz egunkarietan argazkiak. Piraten ipuin bat eskatu zidan behin ilobak eta eleberritxo baten luzera har-tzen hasi zitzaidan, pertsonaiak, korapiloa... Badut proiektu horri ere heltzeko gogoa, baina horretarako piratek bahitu eta itsason-tziko sotoan giltzapetu beharko nindukete *I'm the Pellot* eleberria bukatu arte!

Azken urteotan argitaratu dituzun liburu guz-tiak, nolabait, zure bizipen pertsonalei oso lotuak direla esan daiteke. Gaztetakoak, aldiz, asmakizun hutsezkoak ziren gehiago, fantasia handiagokoak. Aldaketaren bat ikusten duzu orduko eta oraingo fikzionatzeko ahalmenaren artean?

Gaztetako kontakizun asko ere bizipen per-tsonalei oso lotuak zeuden, nahiz eta orduan, lotsagatik edo, gordeago zeuden kontakizunaren baitan. Adibidez lehen bil-dumako ipuin guztietan dago bizipen per-tsonalekiko lotura zuzen-zuzena. *Odolaren usaina*-n ere badago halakorik. Asmakizun hutsezko kontakizunak bururaino erama-teak erakarmen txikiagoa du nigan gaur egun. Bururatzen zaizkidan ideiak guztiz garatu gabe bazterrean uzten ditut. Nire buruari galdetzen diot, literatura zer da? Errealitatetik ihesa, errealtatearen isla, errealtate mozarrotua? Azken errean, asmakizunaren atzean, ametsen artean beza-la, bizipenak egon ohi dira beti. Idazlea iru-dimenaren atzean mozarrotzen da, esatera ausartzen ez dena esateko. Egia delako ere bere buruaz etengabe hizketan ari den per-sona, idazlea berez den hori, jasangaitza izan daitekeela.



• ERDIKO KAIERA

Nola ikusten duzu euskal literatura gaur egun? Zer du eskas, zer soberan?

Nagoen egoeran, ikuspegi nahiko murrizta dut. Gorabehera nagusienak jarraitzen ditut. Irakurtzen dudana baino gehiago irakurri nahi nuke eta hori jada bada zerbait. Horrek esan nahi du, gaur egun literatura zaleak euskaraz argitaratutako literaturarekin biziraun dezakeela, argitaratzen den kopuruak eta kalitateak erdarazkoen menpe modu autonomoan bizitzeko adina ematen du. Arazoa da ez dutela zirkuitu propiorik, kolonizatuta gaude. Horrela oso zaila da literatura sistema sendo bat osatzea.

Azken aldian, bertsolariek lortu dutenarekin inbidiaz alderatzeko joera dago, bertsolariek ordea ez dute konpetentziarik beren esparru propioan, bakanak dira. Euskal idazleak mundu guztiarekin konpetitu behar du, eta gainera munduko hizkuntza nagusien arteko biren menpe dagoen merkatu batean. Euskal literatura, bertan sortua edo itzulia, sustatzeko lehentasunezko ahalegin berezia eta handia egiten ez den bitartean, liburu on asko eta asko oharkabean pasako dira berriz ere, eta gure literaturaren aurrerabideak herren. Plangintza zehatza eta eremu propioa garatu behar ditugu. Tarteka auzo literaturetara jotzea ona da, noski. Euskal literatura garatuko bada gaurko portzentajeak itzulikatu behar dira, idazleen ekoizpenarekiko irrika egon behar da. Irakurle taldeen ugaltzea seinale ona da, baina ahalegin hori biderkatzeko modua asmatu beharko dugu.

“Irakurleengandik jasotako iritziekin idazle sentitu naiz”.

Ikusten al duzu liburu hau beste hizkuntza batean? Ba al duzu erdaratzeko asmorik?

Idazten ari nintzela erabateko askatasuna eman nion nire buruari. Erdaren eta beste kulturen loturetatik aske idatzi nuen. Atzerrian urte luzeak eman ditudanez, zeharka begiratzuz ohartzen nintzen bertan agertzen diren kontu asko gure euskal komunitatetik kanpo ulertzeko zailak izango liratekeela, guk manejatzen ditugun klabeen azalpenak behar izango liratekeela. Idazterakoan hitz-jokoekin eta idazkera moldeekin ere jolas egin dut. Horrek erdaretan nola eman dezakeen ezin dut irudikatu. Nik ez dut erdaratzeko asmorik, baina euskal irakurlearentzat beren-beregi idazten ez dudanez neurrian, literatura maite duenarentzat baizik, esperientzia polita litzateke itzulpenarena.

Literaturan, garrantzitsu irizten diozu hizkuntzaren mugak apurtzeari, hizkuntza harago emateari?

Bai. Idazten ari nintzela, Koldo Izagirrek elkarrizketa batean esandakoa nuen begien aurrean. Besteren artean zioen: “Milaka istorio horiek baino, istorio bakarra mila moldez. Literatura hori da. Bestea probabilitate kalkulua da”. Kontakizunak eskatzen zuenari adi jarri ninduen Izagirreraren muturreko jarrera horrek, nobela klasiko bati ihes egin eta nire baitakoa narratzeko orduan aske izaten lagundu zidan. Eta bide horretan nire mugekin topo egin eta muga-pasoan ibili naiz.

“Gaurko farfaila eta moztrokeriaren aurrean biluztasuna baino antidoto hoberik ez dagoela uste dut. Norberak bere baitatik hitz egin behar du, bere egia esan behar du zintzoki, besteek berdin egin dezaten espero gabe”

Nola ikusten duzu zure burua euskal literaturaren barruan? Eta zure belaunaldia, tropela alegia?

Alde batetik, berriz etorritako bat bezala. Bestetik, hasiberri zaildu bat bezala. Idazten hasi nintzen garaiko belaunaldiaren bilakaera zeharka baino ez dut jarraitu, tamalez. Idazle batzuen lanak irakurri ditut tarteka, baina ez ikuspegi osatua izateko adina. Beraz, ezin dut orokortu.

Zer irakurtzen duzu azken aldian?

Egoerak baldintzatzen du nire irakurketa. Aspaldian ez dut bete nire irrika kutunenetakoa, liburu denda batean sartu eta liburuaren artean ibiltzea, hautaketan. Lagunek ekartzen

edo igortzen dizkidaten liburuak irakurtzen ditut. Kideek jasotzen dituztenak. Tarteka eskatzen dut interesatzen zaidan libururen bat; ez nahi adina ordea. Asko dira irakurri nahi nituzkeenak baina eskuetara iristen ez zaizkidanak. Hala ere, beti ari naiz bizpahiru liburu irakurtzen. Denetarik irakurtzen dut horrela, eleberriak gehien bat, euskaraz eta frantsesez. Orain adibidez, Wuheren *Les Survivants* eta Ernesto Praten *Hiru ilar-gi laurden* irakurtzen ari naiz. Horrekin batera, Amurizaren *Euskara batuaren bigarren jaiotza* aztertzen nabil eta Espainiaren XIX. eta XX. mendeetako historia ikasten ari naiz.



Marisol Iparragirre eta Mikel Antza.

Batzuen ustez erromantizismo gehiegizkoa ageri da liburuan, batez ere emakumeak agertzen direnetan (ikasle poloniarrena, hondartzakoa).

Harrituta utzi nauzu. Ez nekien erromantikoa zirenik pasarte horiek. Are gutxiago erromantikoegiak izan zitezkeenik. Maitasuna agertzen delako? Erromantizismoa baino gehiago bi pasarte horietan prezeski hautuaren gaia da nagusia niretzat, sentimenduei atakarik jarri gabe bizitzea edota norbaitenganako edo zerbaitekiko konpromisoagatik aukera pasatzen uztea. Ikasle poloniarra

“Azken aldian, bertsolariek lortu dutenarekin inbidiaz alderatzeko joera dago. Bertsolariek ordea ez dute konpetentziarik beren esparruan, bakanak dira. Euskal idazleak mundu guztiarekin konpetitu behar du, eta gainera munduko hizkuntza nagusien arteko biren menpe dagoen merkatuan”

badoa protagonistari literatura utziz opari Pariseko bakardadean. Istorioa guztiz bestelakoa zatekeen baldin eta bien arteko harremanean urratsik egin izan balute. Marc-ek ordea, dagoeneko literaturaren besoetan, etsi egiten du hondartzako sirenen deiaren aurrean, nolabaiteko zorion betea erdiesten du, maitasuna eta literatura bat eginik.

Emakumeen tratamendua ez omen da emakume batzuen gustukoa izan. Zer diozu horren gainean?

Pixka bat estralurtar sentitzen naizela horrelako aipamenen aurrean. Esan behar nuen gizon batzuei ere igual ez zitzaizela gustatuko

gizonen tratamendua. Zentzuz erantzuteko, zehazki zer den gustatu ez zaiena jakin behar nuke. Ez dakit. Ondorioztatzen dut norbaitek liburuan agertzen diren emakumeak aztergai hartu dituela eta horren arabera egin duela juzkua. Leku txarrean uzten ditut emakumeak? Jaso ditudan iritzien artean ez zait halakorik iritsi. Nik ez dut emakumeengan edo gizonengan pentsatuz idazten. Niretzat, munduan, jendartearen, pertsonak daude. Eta pertsonen artean denetarik dago. Gainera, ahaleginik egin badut, generoen inguruan ditugun topikoak apurtzeko izan da. Saiatu naiz pertsonen generoa-

ren moztarpean gordetzen duten errealitate gizatiar hori era biluzian agertzen, onerako eta txarrerako.

Zalduaren arabera liburuak duen elipsirako joera garapen nobelistikoaren kontra doa. Ados al zaude?

Hor kanpoko mundu birtualerako irismenik hemen ez dudan arren, badakit Zalduak kritikaren bat egin diola liburuari, Fresnesen nengoela Txalaparta irratian hark egindako kritikaren puntu bat irakurri baitzuten. Liburuak ez du elipsirako joera. Liburuak kontakizunetik kanpo uzten du arlo oso-oso bat, Euskal Herriaren askapenaren aldeko borrokarekin zerikusi zuzena duen guztia. *Atzerri*-k kontakizunetik at uzten duen hori literaturaren bidez kontatzen hastea errazkoa litzateke nire ustez; bai bederen gaur egun, zauriak odoletan eta gatazkaren konponbiderako urratsak egiteko horrelako erresistentzia dagoenean. Literaturarenera iritsi baino lehen beste geltoki batzuk egin behar ditugu guztiok. Gauza mingarri asko gertatu da, asko sufritu da eta sufritzen da oraindik. Nik bederen ez dut nire burua ikusten kartzelako ziegan lubakiko gertakizunei buruz literatura egiten. Literaturak aldiz bete dezake funtzio bat, esanez, “adil, hemen badugu kontu potolo bat konpondu behar duguna, ahanzi behar ez duguna, denon artean irtenbidea eman behar dioguna, albait lehen”. Zeregin oso delikatua da hori ordea, bai konfrontazioaren protagonista zuzenentzat eta baita albotik begira egon direnentzat. Gatazka gaitzat duen artea, izan zinema, literatura edo beste, gatazka gaitzatzeko eta zauriak sendatzeko ikuspegiz egitea da aurrean dugun erronka. Konfrontazioa elikatuko ez duen artea egiten ikasi behar dugu. ■



Kontzertua

apirilak **13**
20:00 2013

Kursaal
Donostia

ibipareo

Laguntzaileak:

argia

anra



Salmenta: Victoria Eugenia leihatila
www.kutxasarrerak.net

Idazlerik ez baita irakurlerik gabe

Bilboko Nazioarteko Letren jaialdia den hau, Gutun Zuria, Alondegiak antolatzen du urtero. Apirilaren 11tik 22ra burutuko da 2013ari dagokiona, eta seigarrena da. Margaret Atwood –PEN Internationaleko presidentea–, Hector Abad, Alberto Manguel, Margo Glantz, John Banville eta Antonio Lobo Antunes idazleekin batera, Harkaitz Cano, Iban Zaldia eta Eider Rodriguez bilduko dira. Gai jakin baten gainean arituko dira denak: noiz eta nola egin zuten irakurketatik idazketarako jauzia.

| MYRIAM GARZIA |

INAKI ESTEBAN *El Correo* egunkariko kazetariak eman dizkigu jaialdi honen xehetasunak, antolatzaileetako ere badenez. “Nire uste apalean, garrantzitsuena da Bilboko ikusleriak, edota Alondegira gerturatzen den edonork, idazle handiak zuzenean ikusteko aukera izatea. Azken finean, Gutun Zuria topaketa da, irakurleen eta haien bizitzaren parte diren idazleen artekoa”.

Irakurle-idazlearen elezaharrak izenburupean aurkeztu da aurtengoa. Irakurle sinple izatetik idazle izaterako pausua noiz eta nola eman zuten azalduko dute parte-hartzaileek. Inaki Estebanen aburuz oso estua da irakurlearen eta idazlearen arteko lerroa: “Irakurlearen figura ez dago erabat definituta. Azken finean, irakurlearen imaginarioa hor dago eta horren bidez ekarpena egiten dio eleberriri, beste eleberririk bat dago irakurlearen gogoan. Irakurlea ez da elementu pasiboa. Zentzu horretan, interesatzen zaiguna zera da: irakurlearen elementu aktibo hori idazlearen imaginarioa nola igarotzen den deskubritzea”. Irakurketaren plazera edota abentura berreskuratu nahi izan dute, Estebanek esan digunez.

Kazetariak zubi lana egingo dute idazlearen eta publikoaren artean. Horrela, Margaret Atwood-ek SER kateko kazetari Montserrat Dominguezen galderei erantzungo die eta Alberto Manguel argentinarri *El Pais*-eko Javier Rodriguez kazetariak egingo dio elkarrietzaketa. John Banville irlandarrarekin, berriz, Inaki Estebanek jardungo du. Goizalde Landabaso Euskadi Irratiko kazetari eta idazleak Harkaitz Canori luzatuko dizkio galderak, Idurre Eskisabel *Berria*-ko kazetariak Eider Rodriguez eta Pedro Ugarte EHUKo komunikazio arduradunak Iban Zalduari.

Beste disziplina batzuei ere lekua egin zaie jaialdian. Maialen Lujanbio bertsolariak eta Xabier Erkizia musikariak *Txori Mugariak* ikuskizuna aurkeztuko dute eta Oskar Alegria zine-zuzendariaren *Emak Bakia* obra ere pantailaratuko da. Bestalde, Hector Abad idazle kolonbiarra *El olvido que seremos* (Izango garen Ahaztura) bere azken eleberraren inguruan arituko da Basauriko kartzelako presoekin. Abadek aitaren istorioa kontatzen du eleberrian. Sendagilea zen lanbidez. Paramilitarrek hil zuten Medellinen.

Gure hitzak

Idazlea izateaz gain, irakurle amorratua ere badugu Harkaitz Cano. Idazle-irakurle arteko harremana horrela definitzen du berak. “Mundu anglosaxoniarrak asmatutako *wreader* delakoa gustatzen zait, alegia, idazlea eta irakurlea biak nahasian, gero eta zailagoa baita bereizketa, onerako zein txarrerako”.

Idazlearen atzean irakurle sutsua dago beti. “Nolabait esanda, idaztea eta irakurtzea sistolea eta diastolea dira. Bata gabe ez dago besterik. Testu baten irakurlerik onena itzultzailea da seguruenik. Eta irakurtzea idazketa mentala ere bada, irakurritakotik gehiena desagertzen den arren. Fisikoki egiten ez den arren, “idatzi” egiten dugu, edo narrazio partikular eta pertsonal bat eraiki, bederen. Geure baitan daude biak”.

Irakurtzea idazlearen lanbidearen zati garrantzitsua dela esan daiteke, baina noraino eragiten dio idazleari eta bere lanari? Canok azaldu digunez, “*faire feu de tout bois* diote frantsesez: edozein egur da on sutarako. Halaxe gertatzen da istorio batean oso sartuta zaudean: inguruan harrapatzen duzun guztiak



balio du nobelaren sua elikatze-ko... Gertatzen zaizun guztia, irakurtzen ari zaren edozer da baliagarri nobelaren zurrunbiloan. *Twist* idazten ari nintzenean, zomorroen izurriteen kontrolerako propaganda orri bat irristatu zidaten atepetik, eta horri tiraka liburuko pasarte bat eta pertsonaia baten ogibidea etorri ziren... Julio Cortazar, Italo Calvino edo Ionescogatik hasi nintzen ni neu idazten, eta baita Atxagagatik edo Sarrionandiagatik ere. “Hil ezazu aita” esaten dute, baina literaturan aita eta aitaorde berriak sortzen dira etengabe, bat akabatu orduko bada beste bat. Nire kasuan hala da, eta eskerrak!”

Goizalde Landabasok ondo ezagutzen du Harkaitz Canoren lana, berak ere irakurlearen eta idazlearen figurak biltzen dituelako agian. Landabaso kazetari gisa ari-tuko da Gutun Zurian. Hain zuzen ere, Harkaitz elkarrizketako du. Bere ustez, Cano idazle “ausarta, berritzailea, aberatsa, koherentea eta indartsua da. Maila gorenean dago”. Idazlea irakurritakoaren ondorio izan ohi dela iritzia dio: “idazleak estiloa badu bizitako guztiaren ondorio da, eta jakina, irakurri izandako guztiaren ondorio”.

Hiztun arraroak

Iban Zalduak bere azken lana aurkeztuko du Gutun Zurian, Lengua de Trapo argitaletxeak argituratutako *Ese idioma raro y poderoso: once decisiones cruciales que un escritor vasco está obligado a tomar*. Zalduaren ustez, “irakurle izatea beti da idazle izatea baino zailagoa: irakurle izatetik idazle izatera urrats txiki bat besterik ez dago, eta irakurle izatea (irakurle on izatea, alegia) bizitza osoko langintza da. Zer esanik ez, hizkuntza minorizatu bateko irakurle izateaz ari bagara”. Euskal idazle baten ajeak argudiatu ditu gasteiztarrek publiko erdaldunari eskeini-



Goian, ezkerrean, Harkaitz Cano. Eskuinean, Ivan Zaldúa. Erdian, Margaret Atwood.

tako azken liburuan. “Idazle baten ajeak baino, euskal literatura garaikidearen ajeak ditu hizpide liburuak; ajeak eta baita pozak ere, gehituko nuke nik. ‘Euskal idazlea’, ikuspegi horretatik, liburua ardazteko tresna besterik ez da. Printzipioz gaztelaniazko publiko zabalarentzat idatzi dut liburua, bertan agertzen diren gauza asko euskal literaturaz argitaratutako aurreko saiakeretan azaldu nituelako. Gaztelaniazko irakurleak aukera eskasa dauka euskal literaturaren egungo egoeraren berri zuzena izateko”.

Idaztera zerk bultzatzen duen, indar ezezagun horrek, soka luzea izan du literatura unibertsalean. “Erantzun argirik ez dugu. Areago, erantzunik ez daukalako, idazleok galderari aurre egiteko fikzio bat eraikitzen dugu maiz. Gainera, erantzun berberak ez luke bizitza osorako balioko ere. Susmagarria irudituko litzaidake hogeita hamar, berrogeita hamar eta hirurogeita hamar urterekin galdera horri erantzun berbera emango liokeen idazlea. Hala ere, gure egozentrismoak beti bultzatu gaitu erantzuten jarraitza”.

Baina bestelakoa al da erantzuna euskaraz idazten duen autorearentzat? Zalduaren aburuz, “gaur egungo idazle gehienentzat ez da bereziki desberdina. Kasuz kasu galdetu beharko, noski. Nire saiakeraren ondorioetako bat horixe da: gure literatura ez da horren arraroa, beste literatura (mendebaldar) bat besterik ez da euskal literatura. Xehetasun batzuk ditu, baina guztien antzekoa da, guztiek baitituzte xehetasunak, azken finean. Duela berrogei edo berrogeita hamar urte idazten hasi zirenentzat motibazioetako batzuk bereziagoak ziren, hizkuntza biziberritzea edo salbatzea, esaterako. Baina hori aldatu da dagoeneko”. ■





Helduen literatura | ITZULPENEA

Krimenak
Ferdinand von Schirach
Itzulpena: Anton Garikano Iruretagoiena
Erein, 2012

Ceci n'est pas un crime

BETIDANIK pentsatu izan dut nola pasatuko den zigor legeetako abokatu defentsarien lana eta zertan datzaten Justiziaren esparruan aritzen den jende guztiaren eginkizunak.

Zer izan liteke krimena gauzatu duen norbaiten defentsan ari-teea? Zer gertatzen da defentsa pertsonalean burututako krimen batez ari garenean? Nola egiaztatu benetako defentsa propioa? Edo, zertan datza defentsa legitimoa? Ferdinand von Schirach (Munich, 1964) juristari esker, argitu ahal izan dut gremio horren funtzionamenduaz neuzkan zenbait zalantza.

Schirachek lan esperientziari heldu dio bere lehen liburuari ekiteko. *Krimenak* izenburuaren azpian biltzen dira esparru pertsonal zein profesionalean idazlea markatu duten hamaika kasu, orain ipuin bilakatuta; *Txelo*, *Summertime*, *Defentsa legitimoa* eta *Berde* izeneko ipuinak hainbat burutazioren giltzarri bilakatu dira niretzat.

Oro har, istorio bilduma honetan ez dugu krimen bat gauzatzaren denetik argitu arteko prozesuaren kontaketa soila aurkituko. Ez behintzat idazleak diotenari erreparatzen badiogu: "Hiltzaile, trafikatzailer, bankuetako lapur eta prostitutei buruz aritzen naiz ni. Bakoitzak bere istorioa du, eta ez dira gure oso desberdinak". Eta, are gehiago, krimenaren ebazpena erruduna aurkitzean datzala uste badugu oker gabilta. Idazleak gogoan du bere buruaz beste egin zuen osabak etengabe errepikatzen ziona: "Gauza gehienak konplikatua dira, eta errua ere halakoxea da".

Schirach literaturaz baliatu da bere lanbidean topatu dituen pitzadurez mintzatzeko eta, aldi berean, esperientziak gidatua, Justizia egiteari buruz eraiki duen ikuspegi pertsonala irakurlearekin partekatu nahi izan du: "Gizakiaz idazten dut, bere hutsegiteez, bere erruaz eta bere handitasunaz". Eta, ene ustez, ez dago hura baino aitopon literarioagorik.

Gizakiaz arduratzen diren lanbide gehienak bezala, Justizia ez da frogak=erruduna ekuazio matematiko hutsa bezain zehatza, tartean badira istorioak, gizakiak, bizitzak eta, nola ez, argilunak. Aburu propioetan sartu gabe, pertsonen bizitzaren hariei tiraka egin ez sortu ditu bere istorioak. Zerk bultzatzen du pertsona bat beste bat hiltzera? Zergatik? Ba al da horren justifikazio moralik?

Azkarregi erantzungo diogu azken galderari, eta nik lehena: Ez dago justifikatzerik. Baina erantzun emate kontua baino gehiago, balorazio kontua dela uste dut. *Krimenak* ordaindu beharreko kontua dira baina dena ez da uste eta ikusten dugun bezain argia. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Euskal Herria eta Eire ipuinen uharteak

LIBURUAREN berezko izenburua *Patuaren uhartea* duzu; *Innis Fodhla* gaelikoz. Hala zeritzoten Eireri, Erdi Aroan. Ipuin hauen bilduma W. B. Yeats idazleak (1865-1939); egin zuen. Nobel sariduna 1923an. Ipuinak jasoak izan ziren garairen ideia egin aldera.

Lehenago baina, Wentworth Webster (1828-1907) idazle ingelesak eta euskaltzaleak euskal, ingeles eta gaeliko literatura herrikoia- ren artean antzekotasunak ediren zituen. Herri ipuinetan, alegia.

Ipuinak herrien folkloreak espresibideak izan dira historian, idazleek bilakabide horretan berealdiko transmisioa bete dutelarik.

XXI. gizaldira iritsita, ipuinak itzultzeaz batera, Eireko amamak kontaturiko ipuinak bilakarazi ditu Karlos del Olmo barakaldarrak. Berbarako, Barakaldoko Gorostiza auzoan jaiotako anaia-arrebek ez zuten uste Eiren beste amama zutenik. "Usteak ustel" esan ohi dugu. Kasuon, ustea ipuinen magiaren ongarria bilakatu da.

Ipuin irlandarrak euskal literaturako paisaiaren osagai izatera pasa dira Karlos del Olmoren eskutik. Itzultzailea idazle ere badela esan ohi dugu, itzulpen lana egiterakoan. Bada, kasuon, modu are nabarmenagor.

Mikel Asurmendi



Ipuin irlandarrak
Karlos del Olmo
Hiria, 2012





Preguntatxo bat
Igelaren banda
Elkar, 2013

Tradizioa modu librean interpretatua

EUSKAL MUSIKA TRADIZIONALA oinarri hartuta, bertsio berriak sortzen dituzte Igelaren bandakoek, konposaketa eta harmonizazio berriak garatzen dituzte. Modu instrumentalean egiten dute beti ere, eta inprobisazioari leku berezia emanez.

2001ean kaleratu zuen taldeak bere lehengo diskoa, eta 2008 urtera arte hainbat kontzertu eskaini zituen Euskal Herriko zenbait txokotan. Zuzeneko emanaldi hauetarako leku txikiak, kultur etxeak, horretarako prestaturiko tabernak aukeratzin zituzten, taldeak bilatzen zuen gertutasuna eta naturaltasuna islatuko zituzten gune aproposak. Harrezkero taldeak inpatse moduko bat bizi izan zuen 2011n Zarauzko Kafe Toreroko eszenatokira igotzeko gonbitea jaso zuten arte. Kontzertu horren ostean, beren ibilbide berriari heldu zioten. Hasier Oleaga bateria-jotzailearen eta Amaier Cajaraville-ren kontrabaxuaren ekarpenekin errepertorio berria osatzen joan ziren eta disko berri bat argitaratzeko ideia garatu zuten. Izan ere, hauxe da Bixente Martinez konpositore, moldatzaile eta instrumentistaren ustean, taldea ezagutarazteko modurik egokiena. Esperientzia handiko musikariez osatutako talde honek, abesti tradizionalak modu librean egokitu eta garatzen jarraitu du. Maitasun handiz hartzen dituzte jatorrizko melodiak baina errespetu gutxiarekin egokitzen dituztela dio Bixente Martinezek. Euskal Herrian sortu diren abestiak berreskuratzerakoan euskal ondarea ere ekartzen dute gurerara, doinu guztiek baitute historia, jatorria eta ibilbidea.

Diskoa osatzen duten 13 abestien artean badira beste zenbait herrialdeetako kantak. Diskoari izenburua ematen dion *Preguntatxo bat* abestiak, adibidez, Arantzazuko erromesaldietan abesten ziren koplei egiten die erreferentzia. Aita Donostiaren kantutegitik berreskuratutako *Gure Aita* abestian, San Joseren bertuteak goraiatzin dira eta kantu hori munduko aita zintzo guztiei eskaini nahi izan die taldeak. Nafarroa aldera joz, Maiatzaren 1ean



Baztan aldean abesten ziren kopletan oinarritua dago *Maiatzeko erregina*. Bizkaia eta Arabako mugetan dagoen Otxandio ingurukoa da, berriz, *Okerreko bideetik* ume kanta. Antza, aspaldi batean astoak eta asto zaintzaileak ibiltzen ziren kostatik Errioxara arraina eramaten, eta bueltan Errioxatik kostara ardoa ekartzen. Ibilbide honetan ardoarekin, astoarekin eta asto zaintzailearekin gertatzen zena kontatzen da.

Abesti hauen guzien artean, gure artean oso ezagunak diren bi kanta nabarmentzen dira: Xabier Leteren *Habanera* eta Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak*. Bi kantari handi horiek omendu nahi izan dituzte, horretarako beren estiloarekin bat datozen abesti hauek hautatuz.

Formatu txikiko talde instrumental honek, inprobisatzeko duen gaitasunaz baliatuz, soinu erreala, zuzena eta hurbila ekartzen digu. Igelaren banda gutizi modura bizi dute taldekideek eta gutizi modura eskaintzen dute beren musika.

Ez da ogibide erraza musikariarena edo sortzailearena, baina horretara dedikatzen denak badu bizimodu horri aurre egiteko ezinbestekoa den grina.

Olatz Korta



Zer litzateke etorkizuna antibiotikorik gabe?

SARRITAN alferrikakoa izaten da izenburukoa bezalako egoera hipotetikoak planteatzea, gizateriaren eboluzioa mesederako izaten baita normalean, eta atzerantzko itzulerak, aldiz, pentsaezinak iruditzen zaizkigu. Baina irudimena pixka bat hegaldatzen utziz gero, eta azkenaldian zineman nahiz telebistan asko ugaritu direnez gaur egun hain “ezezagunak” iruditzen ez zaizkigun giro katastrofisten bidetik, pentsa dezagun une batez zer litzatekeen gure bizimodua antibiotikorik gabe. Hondamendia, apokalipsia eta antzeko hitzak etorriko zaizkigu burura bata bestearen atzetik. Eta ez da gutxiagorako.

Medikuntzak ikaragarritzko aurre-
rapausoak eman ditu azken hamarkadotan, eta gaur egun bizi dugun ongizate egoerari nekez egingo genioke uko. Baina zer gertatuko litzateke egoera arras aldatu eta antibiotikorik gabeko mundu batean biziko bagina? Ikus ditzagun egoera posible batzuk:

Sukaldean ari garela hatz batean egindako ebaki txiki batek hil ala biziko egoera ekarriko luke, eta bizirik irauteko borroka horretan zorreak garrantzi eta zeresan gehiago izango luke medikurik adituenaren jakituria guztiak baino.

Ebakuntza kirurgikorik sinpleenak ere, gaur egun errutina hutsezkotzat jotzen direnak –handitutako amigdala batzuk kentzea, adibidez–, hilgarriak izango lirateke.

Minbiziaren kontrako tratamenduek edo organo transplanteek hil egingo gintuzkete, minbiziak berak edo hondatutako organoaren hutsegiteak baino lehenago.

Erditzea bera hil ala biziko egoera bat litzateke berriro ere emakumearentzat.

Duela mende erdi

Antibiotikoen erabile-
ra 1950-60ko hamarkadetan hasi zen orokortzen. Gaur egungo gazte eta ez hain gazte askorentzat antibiotikorik gabeko mundu bat irudikatzea ezinezkoa bada ere, ondo gogoan daukat gure osaba zena, gauez ohetik jaiki eta bere *cuatro-cuatro* zaharreen gaixorik zegoen umeren baten etxera nola joaten zen, baita agian arratsalde hartan bertan umea kontsultan ikusia bazuen ere.

1960 inguruko urte haietan, antibiotikoak apenas erabiltzen ziren Euskal Herrian. Nahikoa zen ume batek bronkitisa edukitzea –zer esanik ez gaitza apur bat larriagoa baldin bazen– medikuaren bisitak askoz ere ugariagoak eta premia-
zkoagoak bilakatzeko. Zorionez, antibiotikoak zabaltzearekin batera egoera horien larritasuna asko apaldu zen, eta gaurko gizartean eguneroko bizimoduaren partetzat ditugu. Baina zer gertatuko litzateke berriro ere 50-60 urte atzera egin eta antibiotikorik gabeko munduan biziko bagina?

Antibiotikoek bakterioak akabatzen dituzte, baina bakterioek pixkanaka bizirik irauteko modua bilatzen dute, erresistente bihurtuz (ikus ARGIA, 2.300 zbkia.). Dena den, antibiotiko berriak sortuz joango liratekeen heinean, erresistentziarena ez litzateke arazo handiegia izango. Germen bat erresistentea dela antibiotiko jakin baten aurrean? Bada, gure “armamentu” terapeutikoko beste antibiotiko bat aukeratu, eta aurrera.



WWW.ARMADIO.AM

Horrela egin izan da azken urteotan, eta adituak kasu gehienak –denak ez esatearren– konponduz joan dira, egin beharreko tratamendu-aldaketak eginez. Halere, esan behar da gaur egun badirela zailtasun bereziak dituzten kasuak, tuberkulosia edo transmisio sexualeko hainbat gaitz, esaterako. Baita ospitaleetako infekzio oportunistak ere, defentsa ahulduak dituzten gaixoei erasaten dietenak. Kasu horiek, oraingoz, nahiko ondo kontrolatzen dira antibiotikoen erabilera arrazoizkoari esker.

Haatik, 80ko hamarkadatik ez da antibiotiko mota berririk aurkitu, eta litekeena da bakterioen kontrako borrokan egunen batean armarik gabe geratzea. Hori nola konpondu? Betiko moduan, oinarrizko ikerkuntza farmakologikoarekin: lan isila eginez, baliabide ekonomiko eta pazientzia handiarekin, eta saiakuntza ugari kale egin ondoren halako batean antibiotiko berri bat aukituz. Jakina, ikerketa egiteko diru gehiago eskatzea libre da, baina krisi garaiotan... ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa

www.iametza.com
T.943 37 67 16

Bizimodua zor

MUNTSUE-CC BY SA



Haritzari zor diogu, besteak beste, gure bizimoduaren maila.

OXALIS LATIFOLIA, Lekeitio-bedarren herriko Luisek idatzi dit. Zori onen peskizan brasildarrek jartzen dituzten zazpi landareen berri izan bezain pronto euskaldunok zein zazpi gurtu beharko ote genituzkeen galdetu dit. Nire erantzuna, zazpi ez baizik eta gutxienez hamahiru beharko genituzkeela goratu. Zein landarek ahalbidetu dute gure kulturak irautetik bizitzarako koxka gaingitu dezan?

Lehena eta garrantzitsuena hurritza, *Corylus avellana*. Milaka urtetan jaki. Nahikoa hur izanez gero etor dadila glaziazio beltzeko negu gorriena. Era berean makila, parda, itxitura, eraikuntzan hormagai... Zertan ez dugu hurritza lagun izan? Etengabeko

omena merezi du bai, eta poztu naiz Urretxuko Udalak bere armari berrian sartu duela ikustean.

Hurrena maspila edo basagurbea, *Sorbus torminalis*. Hori ere zenbat urtetan bilatu izan ote dugu... Eskuarterako zur bikaina izateaz gain fruitu koxkor gutizia eskaini digu milaka udazkenetan.

Hagina, *Taxus baccata*, baita ere. Auzokoak pozoitzeko, dugun zurik onena eta milaka urte biziz gure odolaren antzinatasuna eta etorkizun oparoaren adierazle.

Fraxinus excelsior, lizarra ere bai. Zur ona, baina batez ere hosto bikaina, belardiak gorritzen dituen udan eta azala ospelduz gorritzen duen neguan aziendarentzat jate-na. Eta gure gurtzen lotura nagua,

sia, zeruak eta lurak elkartzen dituen zuhaitz nagusia, tximistak etxetik urruntzen eta atariak babesten dituen.

Mihura, *Viscum album*. Sagarrondo, ezki, astigar... egunerokotan beharrezko ditugun zuhaitzen gainean garatzen duen bizimodu bizkarroi ulertezinak, naturari diogun etengabeko zorra bere bidez irudikatzen eraman gaitu.

Sagarrondoa, *Malus x domestica*. Ahosabaiaren gailurrerako bidea erakusten milaka urte egin ditugurekin. Fruitu guztien ordezkari, eta aldaera batean ez bada bestean haien denen kolore, usain eta dasta guztiak biltzen dituen espeziea. Eta, gure kulturaren garapen sozioekonomikoan nahitaezkoa izan den sagardoaren iturri.

Haritza, *Quercus robur*, Quercus-tar guztien izenean: ametza, abarritza, artea, artelatza, erkametz... Herrigintza bere itzalpean babestu eta sustatu du. Ezkurra jaki eta okintzarako iringai. Hostoa, etxe-ko animalia guztiontzat azpitarako orbel. Eta zura. Ummmm zura! Ikazkintzarako, upeletarako eta eraikuntzarako. Etxegintzarako ezin hobe: gurdi, arre, etxebizitza eta tankerako egituretarako, alegia. Baita ontzitarako ere. Sagarrondoari eta haritzari zor diegu gure bizimoduaren maila. ■



2.778

Asma-belarrak (*Datura stramonium*) asma sendatzen du berarekin egindako zigarretak errez gero...

Europako eta Asiako zenbait tokitan asma-belarra pozoiz gisa erabili izan da, erailtzeko bezala buruaz beste egiteko. 1950 eta 1965 urteen artean Indiako Agra hirian, Taj Mahalaren hirian, asma-belarra jateagatik hildako 2.778 lagunen heriotzak ikertu zituzten. Milioi eta erdi biztanleko hirian, bi egunetik behin asma-belarrak hildako bat... ■



EKILORE
Lorezaintza eta loradenda

© 943 795 546

Elorregi bidea · Arrasate (Gipuzkoa)

Esklabo irlandarrak, hutsaren hurrengoa


LONDRES, 1625. Jakue II.a erregeak lege berria jarri zuen indarrean: preso politiko irlandarrak itsasoz bestaldera bidali eta Amerikan ezarritako kolono ingelesei salduko zizkieten. 30.000 irlandar inguru eraman zituzten Mundu Berrira kolonoek eskulan gisa erabil zitzaizten, gehienak katolikoak, ingeles zapalkuntzaren aurka matxinatutakoak.

Espainiarrak mende bat lehenago hasi ziren afrikar esklaboen merkataritzan, eta berehala portugaldarrek, holandarrek, frantsesek eta britainiarrek haiekin bat egin zuten negozio errentagarrian. Baina esklaboak ez zituzten Afrikatik soilik erazi, Ingalaterrako erregeak agindutako “bidalketa” hura ez baitzen salbuespena izan; XVII. mendearen erdialdean ingeles merkatarien giza salgai gehienak Irlandatik zetozen. Esaterako, Antigua eta Montserrat uharteetako biztanleen %70 esklabo irlandarrak ziren 1650. urte inguruan.

Hamarkada hartan 10 eta 14 urte arteko 100.000 haur inguru gurasoengandik banandu eta Mendebaldeko Indietan nahiz New England estatuan saldu zituzten. Beste 52.000 esklabo, gehienak haurrak eta emakumezkoak, Barbadosen eta Virginian saldu zituzten. Jamaikara beste 2.000 inguru bidali zituzten... Ez ziren presoak, ez kriminalak, eta ez zuten inolako morrontza kontraturik, gerora zenbaitek saldu nahi izan zuten bezala.

Esklabo irlandarren baldintzak ez ziren afrikarrenak baino hobeak. Aitzitik, haien azpitik zeuden hainbat arlotan. Zuriak beltzak baino askoz merkeagoak ziren; XVII. mendean esklabo beltzek, batez beste, 50 libera esterlina balio zuten, eta irlandarren truke gutxitan ordaintzen zuten bost libera baino gehiago. Horrez gain, esklabo zurien seme-alabek esklabo izaten jarraitzen zuten, baita gurasoek askatasuna lortzen zutenean ere.

Kolonoak, baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzea xede, ema-



1876an dagoeneko esklabotza abolituta egon arren, AEBetako hegoaldean eskulan merkeena herritar beltzek eskaintzen zuten, eta iparraldean, aldiz, irlandar jatorrikoek, Harper's Weekly aldizkariako azalak adierazten duen moduan.

kume irlandarrak esklabo afrikarrek “gurutzatzen” hasi ziren, mulatoak “ekoizteko”. Esklabo nahastekatu berrien arrakasta berehalakoa izan zen: irlandarrak baino garestiago sal zitezkeen eta afrikarrak baino merkeago erosi. Beraz, “produktu” berriak saltzaileei nahiz erosleei mesede egin zien 1681ean Ingalaterrako gobernuak *Forbidding the practice of mating Irish slave women to African slave men for the purpose of producing slaves* legea onartu zuen arte, irlandarrak eta afrikarrak esklabo mulatoak sortzeko gurutzatzea debekatu zuten arte, alegia. Baina ez pentsa neurri hura gizalegeak bultzatu zuenik; britainiar koroak afrikar esklaboen merkataritzaren monopolioa emana zion Royal African Company delakoari, eta hari ez zitzaion komeni merkatu hartan mestizoen aurka lehiatzea. Konpainiak estu hartu zituen metropoliko agintariak, erabaki bihozbera har zezaten. ■



Arrastoak

Literaturak emozioa galdu du azken mendean

EDUKI EMOZIONALA duten hitzen erabilerak behera egin du literaturan azken ehun urteetan, Bristoleko Unibertsitateko antropologo Alberto Acerbik zuzendu duen ikerketa baten arabera. Ikertzaileek bost milioi liburu digitalizatuta jasotzen dituen Googlaren datu basea aztertu dute ondorio horretara iristeko.

Tesi orokorra baieztatu ondoren, hitzak sei kategoriatan banatu dituzte: haserrea, nazka, beldurra, poza, tristura eta ezustea. Hala, termino emozionalak kategoria guztietan behera egin zutela ikusi dute, sail batean ezik: 1970etik aurrera beldurra adierazten duten hitz kopurua handitu egin da.

Bestalde, zenbait gertakizun historikok argitalpenetan adierazitako emozio positiboetan nahiz negatiboetan eragina izan dutela konturatu dira. Esaterako, Bigarren Mundu Gerran argitaratutako liburuetan tristurarekin lotutako hitzek nabarmen egin zuten gora. ■



NYAKALLO LEPHOTO

Ingeniaritza kalkuluak ez dira zuzenak

| URKO APAOLAZA AVILA |

Hala, gida-planak ez ditu ingurumen edo finantza ikuspuntutik soilik zalantzak sortzen, teknikoki ere kale egingo luke. Kanpo kaia-
ren egitasmoa, zenbait alderdi poli-
tikok “estrategiko” eta “ezinbesteko” jo izan dutena, buiarik gabe

geratzen ari da eta hondoratzeko zorian da.

Azpiegituren gida-plana

Azpiegituren gida-planak hurrengo urteetan Pasaiko portuaren azpiegiturek zein izango diren finkatzen du. Gida-plana 2008an egin zuen Iberinsa enpresak, Pasaiko Portuko Agintaritzak (APP) hala eskatuta. Plana onartzeko tramiteak 2009rako amaituko zituztela pentsatzen zuten portuko agintariek –“planifikazioaren azken minutuan gaude” ausartu zen esatera Joxe Juan Gonzalez de Txabarri orduko APPren presidentea– eta obrak 2012an hasia aurreikusi zuten.

Lau urte geroago, tramitazioa ez aurrera ez atzera dabil, eta oraingoz, Jaizkibelgo labarretako harri bakar bat ere ez dute ukitu. Gida-planari eta bere baitan dagoen ingurumen txostenari egindako alegazio ugariak, hala nola erakunde publikoek jarritako erreparoei –bereziki Espainiako Ingurumen Ministerioak–, agerian utzi dute dokumentuak hutsune larriak dituela.

Baina krisi ekonomikoa izan da super portuaren ideia, 1990eko hamarkadan Gipuzkoako Merkatal Ganberan ernatua, inoiz baino kolokago utzi duena. Badirudi, portuko egungo arduradunen joera dela finantzazioa lortu arteko “luzapena” eskatzea.

Gida-planak hainbat irtenbide marraztu ditu Pasaiko portuarentzat, baina kanpo kaia jo du aukera “egingarri” bakartzat, baldin eta Pasaiko badia biziberritu nahi bada.

Dokumentuaren egileek ondorioztatu dute egungo portua epe laburrean “saturatu” egingo dela –krisia oraindik hastapenetan zegoen ikerketa egin zenean–. Portuak gehienez urtean jaso dezakeen merkantzia 6 milioi tona pasatzekoa da eta gida-planaren aurreikuspenen arabera 2028an ia 16 milioi tona mugituko lirateke Pasaian. Zifra horiei tiraka, dokumentuak dio egungo portuak ez lukeela barruan hazteko aukerarik izango, besteak beste ozeano zabalean dabilzan itsasontzi erraldoiek kanaletik sartzeko dituzten zailtasunengatik eta moiletan dagoen espazio faltagatik.

Puesto que este método consiste en determinar la tendencia con que evolucionó el tráfico en el pasado en función de las variables seleccionadas es necesario tener series históricas de datos. Para este estudio la base de datos comprende series de tráfico del Puerto de Pasajes y PIB desde 1997 hasta 2007.


Los pasos necesarios para la aplicación de la regresión simple son los siguientes:

- En principio se plantearon diversas formas funcionales para analizar cuál de ellas captura de mejor manera la tendencia de crecimiento.

g:\py208021 pd pasajes\textos\memoria pd pasajes rev.4.doc



123



Pasaiko portuaren azpiegituren gida-planak 1997 eta 2007 arteko datuak baino ez ditu erabiltzen etorkizuneko kalkuluak egiteko (goian), estatistika bat egiteko datu eskasegiak dira eta hortik eratorritako aurreikuspenak sinesgaitzak (ezkerrean).

“Beharrezkoa da etorkizuneko irtenbide gisa kanpo kaia planteatzea”, dio testuak.

Hainbeste hitz egin den kanpo portuaren proiekturik ez dago ordea, marrazkiak baino ez. Gida-planak laburrean aipatzen ditu kaiaren ezaugarriak: 100 hektareako zelaigunea; 3 kilometro luzeko moilak; eta 236 metroko eslora duten itsasontzientzako tokia, “Anoetako futbol zelaia halako bi, atletismo pista barne”, Miguel Buen APPko presidente ohiaren hitzetan.

Pasaiko portuaren dokumentuan ez da R^2 koefiziente mugatzailea ageri. Zergatik? Ekuazioa egin ostean, emaitza “0” delako

Aurreikuspen, dimentsio eta arrazoibide horiek guztiek, nagusiki neurraketa bat dute jatorria: analisi ekonometrikoa. Nolabait esatearren, atzera begiratu egiten da

etorkizuneko trafikoak asmatzeko eta horien arabera portua disainatzeko. Bada, ekonometria hori auzitan jarri du karrera amaitu berri duen ingeniari batek.

$R^2 = 0$

Beñat Oliveira donostiarrak oso garbi zuen ingeniariaritzaren karrera amaitzeko proiektua non kokatuko zuen. Familiak lotura estua du Pasaiarekin, aitona itsasontzi kapitaina zen, kanpo portuaren eztabaida pipilean zegoen... “Osagai guztiak nituen lan txukun bat egiteko, motibatua nengoen, beraz aurrera”.

Badia biziberritzea eta barruko portua berrantolatzea, helburu bikoitz horri heldu zion Oliveirak. Proiektua egiteko Bartzelonako Unibertsitate Politeknikoko hainbat irakasleren laguntza izan du, batzuk Bartzelonako portuan onduak, beste batzuk Espainiako Sustapen Ministerioarekin harreman zuzena dutenak.

Proiektuak erakusten du portuak badituela aukerak badia barruan segitzeko eta badagoela tokia edukiontzientzako terminal batentzako,

TERMOMETROA • PASAIAKO KANPO PORTUA

inguruko herrien mesedetan gainera (ikus koadroan).

Baina ez hori bakarrik. Kanpo portua defendatzen duten dokumentuen kalkuluak ere xehatu zituen Oliveirak. Zehazki, gida-planaren azterketa ekonometrikoean egiten den trafikoen prognosia edo aurreikuspena berregin zuen. Bertatik ateratako ondorioekin harri eta zur geratu zen, bai bera, eta baita irakasleak ere.

Prognosia erregresio lineal batekin egin daiteke. Hezur-haragizko pertsonontzako, puntutxo zositako grafiko bat da, eta, erdiko marra zuzen batek joera markatzen du. Joera hori lortzeko, gutxienez 30 datu edo “puntutxo” behar dira. Bada, Pasaia portuko gida-planean 1997-2007 urteen arteko trafikodatuak baino ez daude: “Lan zientifiko serio batean ezin duzu 10 datutan oinarritutako erregresioa aurkeztu”, horiek izan ziren irakasleak erabilitako hitzak”, dio Oliveirak.

Puerto de Pasaia
Foroaren esanetan,
egitasmoaren
errentagarritasuna
legeak agintzen duena
baino hamabi aldiz
txikiagoa da, urtean
%0,2 baino ez

Dena den, badago modu bat joera horren fidagarritasuna kontrolatzeko: R^2 koefizientearekin. Ekuazio hori aplikatuz balio bat ateratzen da: 0 – joera sinetsa da – eta 1 – fida zaitezke – artekoa. APPren dokumentuan baina, ez da R^2 -rik ageri. Zergatik? Erantzuna Oliveirak berak aurkitu zuen estatistika software batekin ekuazioa egin ostean: “APPren nota 0 da”.

“Ez dut inongo zalantzarik, bazekiten zertan zebiltzan –dio Oliveirak–. Erregresio bat egitea oso erraza da, Wikipediarekin lortu daiteke. Baina beraiek ariketa konplikatuagoak egiten dituzte, emaitza hobeak lortzeko balio duen BPGaren logaritmoa erabiltzen dute esaterako. Orduan, nola ez dute

R^2 aren garrantzia jakingo? Horrek salatzen ditu”.

Beraz, zenbaki soil batek hankaz gora jarriko lituzke dokumentuaren kalkuluak, “egileek badakite ezin dutela ikerketa horretatik inongo ondorioz atera”. Eta unibertsitate bat hasten denean nondik eta nola galdetzen eta informazioa eskatzen, Pasaia portutik e-postak erantzuteari uzten diote. Etsamina suspenditzen zutela argituko zuen beldur ziren akaso?

Karrera amaierako proiektua esku batean, eta “bikain” nota bestean, kanpo portuaren inguruan hausnarraren dabilen Puerto de Pasaia Foroko hainbat kidearekin bildu zen Beñat Oliveira bere alternatibaren berri emateko, harik eta doktoregoa egitera Australiara joan zen arte.

Portu bat maizterren esku

“Beñat Oliveiraren lanak erakusten du badia barruan edukiontzientzako terminal bat sartzen dela”, dio Jose Javier Belzak. Ekonomialaria eta ingurugiroan aholkularia da Belza, eta Puerto de Pasaia Foroko sustatzaile. Bere ustetan portuaren arazo nagusia da bertako lurren %93 hainbat enpresei emanak daudela urte askotarako: “Portua maizterren esku dago, horregatik joan dira lur gehiagoren bila kanpora, barruan jadanik ez dagoelako. Miguel Buenek duela gutxi 20 urterako kontzesioak egin ditu, baina hori ez da esaten”.


Puerto de Pasaia Foroak lan itzela egin du kanpo portuaren alde erabiltzen diren datuak desmontatzen. Esaterako, aurreikuspen ekonomikoei ostiko galanta eman diete euren alegazioan. Beren esanetan, egitasmoaren errentagarritasuna legeak agintzen duena baino hamabi aldiz txikiagoa izango da, urtean %0,2 baino ez.

Emaitza horrekin, ez da erraza sinestea inguruko herrien biziberritzea ekarriko duenik: “Portua bere ekonomian pentsatzen ari da, ez eskualdekoan”.

APPren gida-planak jasotako milaka alegazioren artean badaude batzuk oso esanguratsuak. Bilduk agintzen duen Gipuzkoako Aldundiak txosten oso kritikoa aurkeztu du, Pasaia alkate izandako eta

Bokalea. Edukiontzientzako itsasontzi ertainak pasako lirategi, Europako “itsas autopistetan” erabiltzen diren gisakoak.

Iberdr
edukio
aldatu
behark



Lur gehiago herritarrentzat. Barne portuaren hedadura txikitu eta Herrerako orubea eta Antxoko nahiz Donibaneke moilen zati bat libratuko lirategi.

LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitzaren proiektuak
birgaitzak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Edukiontzientzako terminala, badia barruan bai

ola. Orube horretan joango litzateke edukiontzientzako terminala. Ontziola lekuz eta itsas hondoaren zati bat dragatu litzateke horretarako.



ESPAINIAKO portuen sarean dauden 28 portuetatik Pasaiakoa da edukiontzitza bidezko merkantzia mugitzen ez duen bakarra. Jaizkibelgo super portua eraikitzeko aldarri nagusitzat erabili izan da hori, edukiontzia daramatzaten barkuak badian “ez direlako kabitzen”. Baina hala da?

Beñat Oliveirak edukiontzitza terminalarentzako tokia badagoela erakutsi du karrera amaierako bere proiektuan. Itsasontziei dagokienez, haien esloa eta sakontasuna ez litzateke oztopo izango. Egun, *Short Sea Shipping* delako merkataritza bogan dago European, errepideetatik kamioiak ateratzen dituzten ibilbide laburreko itsas autopistak, alegia. Kabotaia horietan *feeder* motako itsasontzi ertainak erabiltzen dira batez ere, eta badute tokirik Pasaia bokaletan eta badian.

Oliveirak, horiek baino handiagoak diren itsasontzientzako terminala diseinatu du Iberdrolaren zentral terminaliko itxi berria dagoen orubean. Moilaren zabaleran egon litezkeen mugak saihesteko, edukiontzia itsasertzen perpendikularrean pilotzea proposatzen du, *pull-in/pull-out* sistema erabiliz, hala, urtean 110.000 edukiontzitza mugitzeko lekua legoke.

Dena den, terminalerako sarbidea atontzeko, ezinbesteko ikusten du aldameneko ontziola beste leku batera aldatzea, eta badian dragatu partziala egin beharko litzateke.


Txatarrekin zer?

Badia barruko beste jarduerak ere berrantolatzen ditu proiektuak. Esaterako, inguruko herritarren osasunarentzat hain kaltegarria den txatarrena. Oliveirak produktu horren inguruko ikerketa egin du eta bere ustez txatarra, neurriak hartuz gero barne portuarekin bateragarria izan daitekeen arren, ez da merkantzia ona Pasaiaarentzat, ez soilik ingurumenari begiratuta, etorkizunean merkatu sendo bat izateko ere ez: “Ekonomia gaizki doanean, txatarra da beherantz egiten duen lehen merkantzia eta edukiontziek gora egiten dute”.

Baina, orduan, zer egin Gipuzkoako altzairutegietara joaten diren 350.000 tona txatar-mendi horiekin? Ingurumena zaintzeko prestatuago dauden portuetatik bideratzea hobekiago iruditzen zaio Oliveirari: “Bilboko portuarekin sortu daitekeen laguntasun konpromisotik etor liteke soluzioa”.

Trenbide sarea berritzea, hormigoizko “kaxoiez” osatutako moilak sortzea, Ro-ro edo gurgildun trafikoa- rentzako arrapalak egitea... Eta hori guztia herri guneei espaziorik kendu gabe. Areago, barne portuaren hedadura murriztu egingo litzateke eta Herrerako terreno zabalak, Antxoko moilen zati bat eta Donibaneko moila libratuko lirateke herritarrentzako eta badia biziberritzeko.

Ro-ro arrapalak. Buenavistako moilen berrantolaketa, eta Ro-ro gurgildun trafikoa- rentzako arrapalak eta gune espezializatua.




Ganbazo burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ

Baliteke Ingurumen Memoria uda aurretik egina egotea, dokumentu horrek baldintzatuko du badiaren etorkizuna.

egun Aldundiko Gabinete buru den Juan Carlos Alduntzinen eskutik. Hainbat sailletako teknikarik egindako 34 orrialdeko txostenean, legearekin bateraezintasunak atzeman ditu, besteak beste.

Aldundiaren jarrera aldaketak oihartzun handia izan du, EAJren esku zegoenean kanpo portuaren defendatzaile sutsua baitzen. Baina zikulusaltsa handiagoa sortu du Frantziako Gobernuak hari diplomatikoak mugitu izanak gida-plana Atlantiar Pirinioetako Departamenduan ikusgai egon dadin. Ez da ohikoa estatu batek auzokoaren plateran hatzaparra horrela sartzea.

Horren ondorioz, Lapurdiko eta Frantziako elkarte eta erakunde ugari ere alegazioak jarri dizkiote dokumentuari, batez ere ingurumenari eragingo lizkioken kalteak salatzeke. Izan ere, Miarritze eta Donostia arteko itsas gune oparoa –Atlantikoko itsasertzean bioaniztasun aberatsena duena– arriskuan jarriko luke super portuak.

Azken enbata Ana Oregi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak sortu du, obra hori “faraonikoa” dela esanez. Gipuzkoako EAJren arrapostua kontraesankor bezain argiga-

ria izan da; halako proiektuei uko egitea “Gipuzkoa lehiakor, moderno eta jasagarriari” uko egitea da.

Erabaki politikoa

Pasaiaiko portuak hilabete erabakigarriak ditu aurrean. Portuko agintaritza eta Espainiako Ingurumen Ministerioa Ingurumen Memoria osatzen ari dira, alegazioen erantzunak bere baitan jasotzen dituen azken-azkeneko tramitea. Baliteke

Sustapen Ministerioak pribatuan dio ingeniartza azpiegitura gisa ere sekulako astakeria dela, halaxe azaldu zion Beñat Oliveirari Ministerioan lan egiten duen irakasle batek

memoria uda aurretik egina egotea; bertan zehaztutakoak baldintzatuko du badiaren etorkizuna.

Memoria horrek azpiegituren gida-planari bete-betean eragingo dio eta irudi luke kanpo portuaren ideia errotik desagertu beharko litzatekeela bertatik. “Zeinek daki,

azkenean Madrilen hartuko den erabaki politikoa da”, dio Jose Javier Belzak. Bere ustez egoera lanjerosa suerta liteke, kanpo portua *stand by*-ean gera bailiteke, finantzaziorako giltzarri diren badia barruko etxebizitzaren prezioak berriz ere aparretan egon arte: “Eta bitartean biziberritzea paralizatu egingo da”.

Honetan guztian azken hitza duen Sustapen Ministerioak pribatuan dio ingeniartza azpiegitura gisa ere sekulako astakeria dela, halaxe azaldu zion Beñat Oliveirari ministerio horretan lan egiten duen irakasle batek: “Esan zidan gain-dimentsionatua dagoela, ez dela erreala... Baina azkenean erabaki politiko bat dela, eta ezer gutxi egin daitekeela horren aurrean”.

Jarrera ofiziala Ana Pastor ministroak azaldu zuen duela urtebete, Espainiako Kongresuan Amaiurrek egindako galderari erantzunez: “Proiektua egingo da lege baldintzak betez, eta Pasaiaen, Euskadiren eta espainiar guztien mesedetan”. Bidearen amaieran Espainiarekin egin dugu topo, beraz. ■



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Urteen ostean euskarari heltzeko unea

Euskal Herrian gehiago dira euskara ez dakitenak ezagutzen dutenak baino. Asko kanpotik etorriak, urte ugari daramatzate gure artean, baina ez dute hizkuntza ikasi. Zenbaitek bizimodua bertan egin ondoren heldu dio zeregin horri. Banaiz Bagara elkartearen Urnietako ikastaroan ezagutu ditugu batzuk.

Testua eta argazkiak:

| IURE EIZAGIRRE |

GURE GIZARTEAK krisi ekonomikoa urrun zuen urteetan utzi zuen atzean Juani Martínek Badajoz (Espainia) jaioterria Gipuzkoara etortzeko. Harrezkero 40 urte inguru igaro dira eta egun, Urnietan bizi da bere familiarekin. Euskara ikastea urteotan egiteke geratutako zerbait zen, eta Banaiz Bagara elkarteak herrian eskaintzen duen ikastarora joaten hasi zen duela bi urte. Santi Sánchezek udaberrian beteko ditu bi urte ikastaro berean. Extremadurakoa da bera ere, Cacereskoa, eta duela 36 urte heldu zen Urnietara. Lehenago Gipuzkoako hainbat herritan bizi izan zen sei urtez.

Biek ala biek gogoan dute gure artera etorritakoan zein zen euskararen egoera. “Ni hona heldu nintzenean ezin zen euskaraz hitz egin. Urnietan baserritarrek bakarrik egiten zuten eta gutxi ziren”, azaldu du Martínek. “Bai, baserriko esnearekin jaisten ziren herrira”, gaineratu Sánchezek.

Marivi Sánchez Herrero dute ikaskide. Salamankan jaioa da baina bederatzi hilabeterekin Donostiara eramán zuten gurasoek. Baserrian hazi eta garaiko eskola publikoan ikasi zuen. Gerora euskaldun batekin ezkondu zen, baina ez zuen euskara ikasi. Hau ez da hizkuntza bereganatzeko egiten duen lehen ahalegina: “Duela hogeit hiru



Ezkerretik eskuinera: Petra Elser irakaslea, Daniel Oholeguy, Marivi Sánchez Herrero, Santi Sánchez, Juani Martín eta Jesús López.

urtez aritu nintzen euskara ikasten Donostian. Ongi moldatzen nintzen baina ordutegiak medio, utzi egin behar izan nuen. Orain berriro ikasi egin nahi dut, berandu bada ere”.

“Ni AEKn urtebetez egon nintzen euskara ikasten duela denbora asko —azaldu du ikastarora joaten den Jesús Lópezek—. Goizeko zazpietan sartu eta arratsaldeko zazpietan irteten nintzen lanetik, eta izugarritzko sakrifizioa zen hura niretzat. Utzi egin nuen. Orain libre

nagonez, ikasten ari naiz berriro”. Martínek ere denbora izan ei du euskara ikasteko oztopo: “Hona etorri nintzenetik ikasi nahi nuen. Orain arte ez dut astirik izan lanagatik eta orain, erretiroa hartu dudanean, ikasi egin nahi dut. Baina zaila ikusten dut”.

Hitz egiteko ikasten

Banaiz Bagararen ikastaroan euskaraz hitz egiten ikasten dute, eguneroko egoeretan erabil ditzaketen hitzak eta esaldiak barneratzen.

“Metodo hau idazten ikastea edo gramatika baino gehiago gustatzen zait. Errazagoa iruditzen zait eta hobeto ikasten dela uste dut”, agertu du Sánchez Herrerok.

Eta asteroko jardunean Petra Elser ez da irakasle bakarra, izan ere, zalantzak ozen esanda edonork erantzuten du. Martínek “legatza prestatu nahi dut” esaldia osatu du eta Lópezek berehala galdetu dio legatza zer den. “Zer erosi nahi duzu?” galderari erantzuteko garaian, Daniel Oholeguy da zalantzak dituen. Ez daki zer den “erosi” baina Martínek eta Lópezek segituan erantzun diote: “comprar”.

Gaztelaniarako joera dute ikasleek oraindik baina hori ez da aurrea jarraitzeko oztopo. Hitz jakin batekin trabatuta geratzean, hori gaztelaniaz esan eta esaldia osatzeko eskatzen die Elserrek ikasleei, perpausa egiten jakitea hitz jakin bat ezagutzea baino garrantzitsua goa baita.

Ikasgelan ez ezik, zaila egiten zaie handik kanpo euskaraz egitea. Sánchez Herrero, adibidez, saiitzen da ahal duen leku guztietan, euskaraz egiten, bai etxean bai kalean, eta haurrekin aritzea errazagoa zaiola aitortzen du. Martín iritzi berekoa da: “Umeek berehala hitz egiten dizute, eta gainera, hitz laburrekin”. Kalean hitz egiterakoan nahastu eta blokeatuta geratzen dela dio, ordea. Euskara ikasten hasi zenetik, zenbaitak hala egiten dio noizbehinka “baina poliki-poliki”. Lópezen kasuan ere hainbat lagun euskaldunek orain euskaraz egiten diote, eta berak nahiago du. Sánchezi, berriz, euskara ikastaroan izena ematera animatu zuen lagunak egiten dio euskaraz harrezkero baina blokeatuta geratu eta esandakoa errepikatze eskatzen dio. “Zer esan dizun ez dakizulako beldurrez-edo gertatzen zara”, dio.

Dena den, egunerokotasunak hizkuntza barneratzen ari direla erakusten die: “Lehen ez nekien ezer, ‘bai’, ‘eskerrik asko’ eta askoz gehiago ez. Orain hitz solte asko dakizkit, ez dut elkarrizketa bat jarraitzeko gaitasunik baina hainbat gauza ulertzen ditut. Telebistan, adibidez, lehen ez nuen ezer ulertzen eta orain hitz batzuk jakinda, badakit zertaz ari den”, azaldu du Sánchezek. Senarrari ulertu duena esaten dio orduan, ilusioz.

Eskolan jasotako hizkuntza

Euren etxeetan ez da ia euskararik hitz egin baina beste kasu askotan bezala, seme-alabek eskolan ikasi dute. Horretan adinak zeresan handia du ordea, urte gutxiren buruan egoera aldatu egin baita. Sánchezek, adibidez, bi alaba ditu, bata 35 urtekoa eta bestea 30ekoa. Biek ikastetxe publikoan egin zituzten ikasketak eta zaharrenak ikasgai bakarraz zuen euskaraz. Gazteenak ele bitan

“Telebistan, adibidez, lehen ez nuen ezer ulertzen eta orain hitz batzuk jakinda, badakit zertaz ari den”

Santi Sánchez

egin zituen ikasketak, eta ikasgaien erdia zuen euskaraz. Ondorioz, agian ulertu bai, baina hitz egiteko gai ez direlakoan dago ama. Martínen semeek ikastolan ikasi zuten eta oso ongi ei dakite euskaraz. Etxean ere noizbehinka euskaraz egiten dute elkarren artean. Lópezenak gazteagoak dira eta haien ezagutza baliatzen du berak euskara praktikatze: “Orain niri euskaraz egitera behartzen ditut”.

Etxean euskaraz ez aritzeak gurasoei arazorik eragin ez badie ere, noizbait sumatu dute gabezia

horren eraginik: “Umeek eskolako lanak egin behar zituztenean, laguntzeko edo azalpenak emateko garaian, bota izan dut faltan euskaraz jakitea”, dio Lópezek.

Orain, berriz, eurak dira seme-alabei zein bilobei laguntza eskatzen dietenak: Martínek ulertzen ez dituen gauza ugari galdetzen dizkie semeei eta Sánchezek bilobak presatatutako hitz eta esaldi zerrenda luzea du. Bilobak badaki euskaraz baina hark ere ez du etxean erabiltzen: “Guk ez dakigunez, berak ez du hitz egiten. Nik lehenago ikasi izan banu, hona lehenago etorri izan banintz, agian hitz egingo zukeen”.

Euskarari eusteko ahalegina

Oholeguy argentinarra da jatorriz eta Euskal Herrira heldu denetik euskaraz hitz egiteko jendearen gaitasun ezak du harrituta. Debekuen eragina dela ondorioztatu du, baina ez omen du guztia euskaraz egiten duen inor entzun eta baserriar zaharrek ere esaldi bat euskaraz eta hurrengo gaztelaniaz, hiru euskaraz eta laugarrengo ele bitan egiten dutela iruditzen zaio.

Duela berrogei urte bizi izandakoa du gogoan: aitaren senideak Argentinako barnealdeko herri batean bizi ziren, euskaldun ugarioko herria, ingurukoak bezala. Bera haurra zela, jaiak egiten zituen hango euskal komunitateak. Haiak ez zutela gaztelaniazko hitz bakar bat ere erabiltzen eta ez berak ez bere aitak ez zutela deus ulertzen oroitzen du. Gainera, Zuberoakoa zuen aitona eta hark erronkarietaz hitz egiten zuen, beraz, are nekezagoa zitzaion euskara ulertzea. “Ozeanoaren alde honetara etorrita, ez dut guztia euskaraz egiten duen inor topatu. Oso arraroa egiten zait”.



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Perezagua batailoiko komunistak

Zigoitiko Etxaguen herrixkan hamabi lagunen gorpuak lurpetik azaleratu ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak. Zantzu guztien arabera, Facundo Perezagua batailoi komunistako kideak izan daitezke, 1936ko gerra zibilean borrokaldi ugartan parte hartu zuen taldea.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ETXAGUENGO ELIZAREN ondoan, errepide berri batek erdi ezkutaturik, hobi bat azaleratu du Aranzadik. Euskal Herrian gerra zibileko gorpuak berreskuratzeko lanetan orain arte azaleratu den hobi handiena da. Hamabi lagunen hezurak aurkitu dituzte, baina Pako Etxeberria Aranzadiko ikerlariaren esanetan, beste hainbaten aztarnak ere egon litezke. Beste kasu askotan bezala, ordea, ezin izango dituzte guztiak azaleratu, 1936az geroztik egindako errepide batek erdiz erdi harrapatu baitzuen hobia.

Aranzadik 2000. urtetik darama halako indusketak egiten eta azken urteetan makina bat gorpuzkin berreskuratu dituzte Euskal Herrian eta Espainian. Dena den, indusketa horietan jarduten duen Lourdes Errasti antropologoak *Gipuzkoako Hitza*-ri azaldu dioenez “badirudi azkenetan dagoela gai hau”, hobiak aurkitzeko informazioa duten pertsonak hiltzen ari direlako: “Ezinbestekoa da norbaitek pista bat ematea, hor dago gakoa” dio Errastik.


Zigoitian, herritarrek betidanik jakin izan dute faxistek leku horretan hainbat lagunen hilotzak lurperatu zituztela; etxe barruetan isilpean aipatutako kontua izan da. Duela gutxi, inizatiba hartu eta erakundeekin harremanetan jarri ziren Felix Placer apaiza eta Marisol Hernando Etxaguengo administrazio batzordeko presidentea. Apirilaren 4an hasi eta bukatu zituzten lanak arkeologok.

Azalduetako hezurak 1936ko abenduan Legutioko borrokaldian hildako milizianoenak izan daitezke.



EUSKADINET

DIARIO DE NOTICIAS DE ALAVA



Ezkerrean, milizianoen gorpuzkinak. Goian, hezurren artean aurkitutako objektuak.

Legutioko borrokaldian abertzale eta ezkertiarrek hartu zuten parte eta frankisten menpe zegoen Gasteizera iristea zuten helburu. Baina ez zuten Legutiotik igarotzea lortu eta inguru horretan hildako ugari izan zituzten; esperientzia falta aipatu izan da porrot hura azaltzeko orduan.

Aranzadiren ustez, Etxagunenen azaldutako gorpuzkinak Facundo Perezagua batailoi komunistako kideenak izan daitezke, buruz behera lurperatu baitzituzten, “ateoak bezala”, Placer-en hitzetan. Hezurren artean hainbat arkatx eta txanpon ere azaldu dira.

Perezagua batailoia

Legution borrokatu ziren 25 batailoietako bat zen Perezagua. 1936ko udaran sortu zen, batez ere Meatzaldeko komunistez osaturik. Legutioko borrokaldian parte hartu zuen, Otxandioko aldean, eta hantxe hil zituzten kide ugari.

Ondoren, 1937ko otsailean Asturiasera bidali zituzten, Agirren

Gobernuak Oviedo hiria erasotzeko eratu zituen euskal brigaden barruan. Perezaguako kideek mendigain estrategiko bat menperatzea lortu zuten, baina han ere operazio orokorrak huts egin zuen; Areces herrixkako hondamena da borrokaldi hartako gertaera ezagunena, Candido Saseta komandantea hil zutenekoa, hain zuzen.

1937ko udaran Perezagua batailoia kasik desaginda zegoen, bertako miliziano asko hilda edo atxilotuta zeuden. Hala ere, beste batailoietekin batu eta borrokan jarraitu zuten Perezaguako komunistek, harik eta 1937ko abuztuan Santonñan italiarren aurrean amore eman zuten arte, beste milaka gudarirekin. Irailaren 4an, Santonñako presoak frankisten esku geratu zirenean, fusilatu zuten lehenengo pertsona Manuel Egidazu Garai bilbotarra izan zen, Facundo Perezagua batailoiko komandante-burua. ■



Lizarran bai, Villatuertan ez

SORTZEN-IKAS-BATUAZEK antolatatu du laugarren urtez jaia, *Hizkuntz zonifikazioari ez. Euskara ofiziala auzo eta herri guztietan* lelopean. Nafarroako Villatuerta aukeratu dute apirilaren 21ean egingo duten jai-aldarrikapenerako. Herri horretatik



Lizarrara lau kilometro baino ez daude, eta Deierriko Arandigoienerra 500 metro. Bada, hizkuntz zonifikazioaren erruz, Villatuertako haurrek herriko eskola publikoan euskaraz ikasteko eskubiderik ez dute, eta aldez, Lizarrakoek eta Arandigoienekoek bai. Datuak esanguratsuak dira. 2011-2012 ikasturtean, Lizarrako Remontibal eskola publikoan ikasleen %62 ez zen Lizarrakoa eta D ereduan ikas-

ten ari zirenen %48,8 eremu ez-euskaldunekoa zen. Ikastolan, %41 ez zen Lizarrakoa eta %31 eremu ez-euskaldunekoa zen. Kontuan izan behar da Lizarrako eskolek inguruko herrietako haurren bilgune zeregina betetzen dutela orokorrean, alabaina begi-bistakoa da eremu ez-euskaldunetan bizi eta haurrak euskaraz eskolatu ezin dituztelako hainbat gurasok egunero burutzen duten exodoa.



Bahea

Amets Arzallusek Enbataren 50. urteurrenean Itsasun esanak:

“Ez dut sekula ulertuko nola hizkuntza bat transmititzeko bideak zabaltzen hainbeste eman duen jendeak hain indar guti duen gero erabiltzenerako. Nola gizarteko diglosia bat uzkalteko dena emateko prest den jende bera, gero, ezgai den bere baitako diglosiak iraultzeko. Nola euskara hain gartsuki aldarrikatzen duen jendea gero frantsesez mintzo den. Euskaldunak izan nahi dugu frantsesez biziz. Errazago zaigu ainitzez.

Kontra egiteko prest gara suprefet harro bati, hezkuntza eredu frantsez bati, hizkuntza politika jakobino bati, polizari, intelektualen teoria txobinistei, lege arrotzei, burokrasia administratibo amaigabeari, gure poltsiko hutsei, estatu bati, biri... kontra. Gure buruari izan ezik”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Borreroen eraso eta zigorra

KAPITALISMOA aseezina da, hemen eta munduan. Gainera, bere planak aurrera eramateko, menpean ditu gobernuak eta administrazioak, langileriaren eta herri sektoreen kontrako urratsak etengabe emateko prest beti ere. Kapitalismoak politika kontrolatzen du, parlamentuak, instituzioak eta munduko ekonomia. Eta horrela, herritarrek zigortu eta erasotzen ditu. Bere errezetak eta neurri antisozialak inposatzen ditu. Zipre da azken adibidea. Kapitalismo basatienaren ordezkari nagusia den Troikak (Nazioarteko Diru Funtza, Europar Batzordea eta Europako Banku Zentrala) agintea hartu du Zipren. Zipretarrek aukeratua izan ez den arren, Troikak erabaki du herritarren aurrezkiak erasotzea, eta esan du milaka funtzionario kaleratu behar direla eta soldatak murriztu. Denontzako abisua da!

Kapitalismoak badaki honek guztiak protestak eta mobilizazioak sortuko dituela. Baina badaki haiek

kontrolatzeko eta isiltzeko eskura dituela ohiko gobernuak; kaleetan milaka polizia jarri eta herritarrek identifikatu, santzionatu eta atxilotuko dituzte “erasotzea eta zigortzea” egotzita. Espainiako Estatuan horretan ari dira, PPko politikarien etxebizitzetan aurrean mobilizatu diren herritar hipotekatuen kontra. Kurioso da. Ez dituzte borreroak delinkuentek eta hiltzaileak pertsegitzen, ez dute pertsegitzen pobreen odola zurruputzen duen eta milioika lagun langabeziara eta miseriara jaurtitzeko dituen kapitalismoa. Biktimak pertsegitu eta atxilotzen dituzte. Hala-koxea da kapitalismo hau. Beharrezkoa da gizartean eta politikan sendotasunez erantzutea egoera honi, borreroen eraso eta zigorraren kontra, kapitalismoaren eta hura kudeatzen duten gobernuen kontra.



Juan Mari Arregi

RQ-170 Sentinelek biharko gerrez iragarri diguna

2011ko abenduan AEBetako armadaren RQ-170 Sentinel hegazkin pilotu gabea lur hartzera behartu zuten Iranen. Nola lortu zuten iraniarrek yankien abangoardiako abioia tiroz suntsitzeko orde z osorik harrapatzea? Gako ugari dauzka barrenean gorderik, AEBak espazioan antolatutako defentsa-eraso sistemaz eta estatu askoren ziber-gerraz.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

DITXOSOKO ZIBER-GERRA EDO gerra informatikoa hainbesterako ote da? Martxo hasieran Frantziako *Courrier International* astekariak *La cyberguerre est déclarée* deklaratu du. “Estatuen arteko gatazkak gero eta gehiago jokatzeko dira gudu-leku birtualean”, hitzok egiten zion sarrera *Courrier*rek artikulu bilduma interesgarri bati, aspalditik eredu bihurtu duen formularen barruan: planeta osoko aktualitatean pil-pilean dauden gaiei buruz munduko hedabide nagusiek argitaratu dituzten elkarrizketa eta kronika hautatuak batzen ditu astero.

Gure irakurleari esplikatu beharrik ez dago zergatik den inportantea ziber-gerra. Informatikaren garapenak biziaren atalak oro digitalizatu ditu, numeriko bilakatu esango dute Xilaban. Internet sarea bihurtu da garapen ekonomiko eta sozialaren berme... eta aldi berean, hondatuz gero, arrisku.

*Courrier*rek gaiaz bildu dituen artean, *Foreign Policy* amerikarrean David Rothkopfek plazaratu *Cool War* analisisian erkatu ditu gerra hotza (*cold war*) eta gerra *guay* edo *chouette* esango genukeena (*cool war*): “Gerra *cool* berri hau hotza baino gehiago epela da, esan nahi baita, eten gabeko erasoan oinarritua; eraso ez dira gerra ekintzak juxtu-juxtuan, baina bilatzen dute etsaia

ahultzea eta haren gaineko abantaila eskuratzeko bere subiranotasuna hautsi eta haren defentsa lerroak gaindituz”.

Joan den otsailaren 19an *New York Times*ek eskaini zuen gerra mota berriaren azken aleetakoa, salatuz Txinako armadak Shanghain daukan 61398 unitatea omen dela Mendebaldeko estatu eta enpresa nagusien sistema informatikoak modu sistematikoan atakatzeko dituen.

David Rothkopfen iritzian, kristo guztiak daki txinatarrek eten gabe dirautela jarduera horretan, Errusia eta Irango militarrek bezala bestalde, baina “inork ez du uste horregatik AEBren eta Txinaren arteko harremanak hautsiko direnik. (...) Txinatarrek gure jabeko intelektuala bortxatzen dute, AEBetako ekonomia buruzko informazioa biltzen, gure enpresa eta azpiegitura funtsezkoak, AEBen segurtasuna bera, behaztopatzen dituzte (...) baina erantzun epela ematen diegu, geu ere mundu osoan gauza bera egiten ari garelako”.

Rothkopfek aipatu du Irango programa nuklearra sabotatzeko haien ordenagailuak kutsatzeko yankiek eta beren aliatuek sortutako *Stuxnet* birusa. Horrelako eraso *epel*ekin lortu nahi dute bestela eraso *bero* bat –bonbaketa bat– eskatuko

Duela urte bete, 2012ko apirilean, Irango Iraultzaren Zaindarien jeneral Amir Ali Hajizadeh-k bertako telebistaren kamerei erakutsi zien hilabete batzuk lehenago AEBetako armadari harrapatutako RQ-170 Sentinel pilotubako aireplanoa. Irango armada paralelo berak zabalduetako irudietan ageri da hegazkina osorik, Khomeinik sortutako iraultza laudatu eta AEBak gaitzesten dituzten afixen aurrean, Amir Ali Hajizadeh teknikari baten azalpenak aditzen. Antza denez, Osama Bin Laden gertutik zaindu zuen Abbottabad herriko jauregian zegoela, AEBetako militarrek hil baino aste pare bat lehenago. RQ-170k ez darama armarik, inteligentziarako prestaturik dago, arerioaren komunikazioak behatzeko. Kamuflaje elektroniko oso sofistikatuak babesten du, radarrek hauteman ez dezaten. Iranen osorik lur hartu izanak bistan uzten du hango militarrek airean zebilela egin zirela bere jabe.

lukeen helburua: Iranek ez dezala bonba atomikoa eskuratu.

“Baina –dio Rothkopfek– guk etsaiei egiten diegun bera egin diezagukete beraiek. Zuk nonbait bonba bat jaurtitzen duzunean, helburua suntsitzeaz gain bonba bera ere desegiten da. Aldiz, har informatikoa zabaltzen duzunean, bere osagaiak osorik diraite eta berreskuratzen baldin baditu etsaiak berrerabili ahal izango ditu bere mesedetan”. Horixe da, antza, RQ-170rekin gertatu zaiena. Hala saldu dute, behintzat, irandarrek. Alegia, yankiek eta israeldarrek haien kontra erabilitako birus informatikoen ezagutzatik lortu dutela RQ-170 hegazkina darabilen sistemaren kontrola berenganatzea, abioiaren jabe egin eta osorik Iranen lurreratzea lortzeraino.

Droneak ez dira jostailuak

Ziber-gerraz ari garenean gehienbat ezagutzen ditugun ordenagailuen kutsaduraz ari garela pentsa lezake irakurleak. Hau da, birusak, har informatikoak, sistema informatiko baten kontrola kanpotik hartzeaz, zerbitzariak blokeatzeaz, eta abar. Ere horretakoak dira hedabideetan ezagutarazten diren erasoetako gehienak. Frantzian, esaterako asko aipatu da joan den urtarrian, frantsesek Malin mili-



azken hamarkadotan garatu dituen arma eta gailu elektroniko berriak, hala nola piloturik gabeko *drone*ak, komunikazio sateliteak, eta abar luzea. Ezkutua hiru geruzatan banatuta dago.

Lurrazalaren hurbileneko geruza osatzen dute hegaldi apalenean dabilen *drone*ak, gaur egun bai espioitarako eta bai erasoetarako erabiltzen direnak gehi eraikitzen ari diren belaunaldi berriko Global Hawk berriek. Horiek misilez eta bonbaz ekipaturik joango dira, Europa, Asia zein Afrikako edozein txokotan su egiteko prest. Geruza honetako osagaia zen RQ-170 famatua, iraniarrek ebatsi eta erakutsi arte AEBetako herritarrentzako ere sekretua zena.

12 milia –19 kilometro– arteko geruza berean ibiliko dira eguzki energiaren mugituko diren *Vulture* erraldoiak ere, 121 metro zabaleko hego eta guzti.

Goragoko geruzarako, 200 kilometroko altuera arterako ari dira garatzen Falcon Hypersonic hegazkin berria, hotsarena bider 22ko abiaduran –21.000 kilometro orduko!– hegan egiteko prestatua... lehen aldiz probatzean lehertu egin zitzaizkien arren.

Sare erraldoi honen hirugarren geruzan, 200 kilometro edo gehiagoko orbitan, ibiltzeko probatuta daukate X37B *drone* berezia, 29 metro luze izan arren piloturik gabe gobernatzen dena. Gisa honetako *erlamando* berriek zainduko dituzte lagunak sateliteak eta hala egoitzen bada erasoko arerioenak. ■



tarki esku hartzea erabaki eta bihar-muneari, Defentsa Ministerioaren bi gune atakatu zituztela. Lehenago, 2011ko martxoan, Ekonomia eta Finantzen Ministerioak 150 ordenagailuren kontrola hartu zuen norbaitek kanpotik. Horrelakoetan fite aipatzen dira susmagarriak: Txina, Errusia, Iran, edo eta AEBak berak...

Baina ziber-gerra programa informatikoetatik askoz haratagoko eremuetan ere jokatzeko da. Gerra beraren atalak baizik ez dira etsaia-aren azpiegiturak kutsatzeko software tranpatia, komunikazio digitalek beharrezkoak dituzten satelite eta bestelako azpiegitura sofistikatuak segurtasuna, eta teknologia berriak eraikitako robot gerlariak.

Osotasunaren neurria pittin bat ulertzen hasteko pistak eskaini ditu berrikitan *Sin Permiso* gunean Alfred W. McCoyk *La guerra espacial y el futuro del poder global de EEUU* analisian.


Wisconsingo unibertsitatean historia irakaslea den Macoy, mende batean zehar AEBetako armadak teknologiararen alorrean egin duen bidea azaldu ondoren, ahalegindu da 2020ari begira hango militarrek dauzkaten planen aztarnak josten, Defense Advanced Research Projects Agency delakoak darabilen puzzlea osatzeko.

Macoyren arabera, AEBek defentsarako bezala erasoetarako luraren inguruko espazioan antolatzen ari diren ezkutuak biltzen ditu



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Hiltzailea libre dabil

HILTZAILE bat libre dabil Ertzaintzaren baitan 2012ko apirilaren 5az geroztik. Zenbait medioren esanetan (*El Correo*, 2012-10-06), hiltzailea hamar ertzainen talde batean egon liteke edo akaso hiruko talde batean, baina oraingo ez dakite nor den, tiro egin zuenean beste ertzain horiek ere tiroka ari ziren eta. Hiltzaileak egindako tiroaren ondorioz, jaurtitako gomazko pilotak Iñigo Cabacas gaztea buruan jo eta oso larri zauritu zuen, lau egun geroago ospitalean hiltzeraino.

Herrizaingo Sailak azaldukoaren arabera, guztia gertatu zen Athleticen futbol partidu baten ondorengo ospakizunean, Ertzaintza istiluak baretzera joan ei zenean. Lekukoen arabera, bi pertsonen arteko borroka bat izan zen, baina Ertzaintza iritsi zenerako ez zegoen istilurik eta, hala ere, eraso egin zuen. Hamar bat ertzainek egin ei zuten tiro gau horretan, baina hiruk bakarrik onartu dute tiro egin izana. Hori da Cabacas auziaren lehen kapitulua.

BIGARREN kapituluak hiru osagai nagusi daude: euskal gizartearen haserre, agintarien azalpenak eta ikerketa irekiera. Herritarrek nekez uler zezaketen nola Ertzaintzaren pilotakada batek hil zezakeen Athleticen garaipena ospatzen ari zen 28 urteko gaztea. Ez herritarrek, ez politikariek, ez agintariek... inork ez. Eta dena argitu beharra zegoen, alderdi eta agintari guztien esanetan, kosta ahala kosta.

Bi ikerketa ireki ziren, ohiko judiziala eta Ertzaintzaren barnekoa, baina ez bata ez besteak ez zuten konfiantza askorako tarterik. Kasu hau berau ere gaizki hasi zen. Gertaerak apirilaren 5ean izan baziren, gaztea hil zen 9ra arte, Rodolfo Ares Barne sailbu-

ruak ez zuen azalpen bakarra ere eman, agertu ere ez. Gero bai, baina lehen unean Ertzaintzaren pilotakada zalcantzan jartzeko eta gertakizunen (ustezko istiluak, Ertzaintzaren oldarraldia, pilotakada...) ordena ukatzeko. Autopsiak pilotakadaren bertsioa berretsi zuenean bakarrik onartu zuen publikoki bistakoa zena. Gainera, saiatu zen familiari kalte ordaina ordaindu eta gaia bertan behera gera zedin, dena istripu handi eta larri baten gisan gera zedin.

Kontua da Aresen utzi zuela Jaurilaritza, bere ordezkoez ere ez zutela ezer gehiago bideratu eta, gaia epaileen esku dagoela argudiatuta –ikerketa iragarri zenean auzia jadanik bazegoen epaileen esku, ohikoa den gisan –, ez dela barne ikerketaren berri eman. Areago, ez dago batere garbi barne ikerketa serioz egin den. Familiak adierazi duenez, gainera, ikerketa judiziala ere gelditu dago eta haren abokatu Jone Goirizelaia

Itzela da garaiotan Ertzaintzak istripuarena luzatzea, besterik gabe, urteetan milaka pilota jaurti ondoren, eta orain tresna hori desegokia dela onartzen denean

gogor salatu du fiskaltzaren ekimen eza. Berak bakarrik ez, Arartekoak berak ikerketa egin zuen eta Barne Sailari kritika egin zion informazioa ukatu eta ez laguntzeagatik. Arartekoaren ondorioa honakoa izan zen: “Barne Sailak ez du justifikatu indarkeria eta gomazko piloten erabilera”. Aurrekariak kontua hartuta, beraz, eta kontrakoa erakusten ez den bitartean, bada arrazoirik pentsatzeko ikerketa judiziala ere ez dela oso urruti joango.

HIRUGARREN kapitulura ere iritsi da auzia, istripuarena: hilketa ez, istripua izan zen. Ertzaintzako zuzendari Gervasio Gabirondok duela egun batzuk esan du Ser Irrati katean: “Istripua izan da, inork ez zuelako sortu den kaltea sortzeko asmorik”. Ez omen zaio esaten horri asmorik gabeko homizidioa? Azken 30 urteetan Ertzaintzaren pilotakadak probatu dituzten ehunka –milaka?– pertsonen argi izango dute ez dagoela istripurik, min egiteko borondatea baizik. Eta hori aitortuta, orduan bai, logikoena da pentsatzea mina eragiteko asmoa –pilotakada– ertzainari muturrera joan zitzaioela, nahi gabe Cabacasen heriotzaraino.

Itzela da garaiotan Ertzaintzak istripuarena luzatzea, besterik gabe, urteetan milaka pilota jaurti ondoren, eta orain tresna hori desegokia dela onartzen denean, besteak beste jaurtiketan pilota batere zehatza ez delako. Eta agintarien aldetik esandakoa da material hori ez zela berriz


erabiliko, oso kasu larrietan bakarrik. Baina harrez gero askotan erabili izan da, besteak beste tartean izan den greba deialdian, piketeak edo manifestariak sakabanatzeko.

LAUGARREN kapituluak, horregatik guztiagatik, bi azpi-kapitulu beharko lituzke. Bata da ikerketa judiziala bere amaierara iristea, Iñigo Cabacasen hiltzailea nor izan den argitu arte. Bestea da Ertzaintzaren birmoldaketa sakon bati ekitea, batez ere gatazkaren eraginez, azken urte luzeetan izan duen errepresio poliziaren atal hori alboratu eta ahalik eta herritar gehienek zerbitzura izango den polizia izan dadin. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bilboko Kafe Antzokia

Bazkaria
bi lagunentzat

Done Bikendi, 2
Bilbo BIZKAIA

www.kafeantzokia.com

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3

KATIUSKA
GORRIAK
Josu Bergara



Katiuska gorriak

Josu Bergara

5 CD opari

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2362. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

- Joseba Etxebarria Uriarte (Larrabetzu)

INGURU ABENTURA Espeleologia II

- Larraitx Mitxelena Erize (Oiartzun)
- Iruñe Iturbe Arriola (Aretxabaleta)
- Justo Ezenarro Mugaguren (Bilbo)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Mikel Lizarreta Jaka (Gartzain)
- Maria Isabel Aranburu Garcia (Arrasate)
- Joxemari Iraola Aranzadi (Lasarte-Oria)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
- Auro Ansozregi Alzibar (Mutriku)
- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)

MUNDUKO IPUINAK

- Redondo Jaun Andreask (Hernani)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



berriak 10 urte

zatoz gurekin
ospatzera

Apirilak 12, Errenteria
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Apirilak 13, Igorre
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Apirilak 19, Bermeo
Anari eta Leire Gotxi

Apirilak 20, Beasain
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Apirilak 26, Amurrio
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Apirilak 27, Bilbo
'Bazkaria' Hor Dago-Abante
konpartsak 20 urte, BERRIAk 10 urte

Apirilak 27, Hondarribia
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Maiatzak 3, Gasteiz
Bertso trama
Tramagilea: Josu Goikoetxea.
Bertsolariak: Oihane Perea, Andoni Egaña,
Unai Iturriaga, Amets Arzallus

Maiatzak 3, Hernani
Xabier Montoia

Maiatzak 10, Durango
Inoren Ero Ni
eta Borja Estankona

Maiatzak 10, Zalla
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Maiatzak 11, Izpura
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Maiatzak 17, Tolosa
Anje Duhalde

Maiatzak 18, Lizarra
Eñaut Elorrieta

Maiatzak 18, Bera
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Ekainak 22, Andoain

Martin Ugalde kultur parkea

Egun osoko jaia: haurrentzako ikuskizunak,
bertsolariak, jan-edana, musika saioak.

Petti, Napoka Iria, Morau eta Gose

Sarrerak salgai apirilean
www.berria.info-n

Sarrerak: 5 € berrialagun harpidedun
eta berrialagunentzat.
Gainerakoentzat: 10 €

Maiatzak 23, Bilbo
Igelaren Banda

Maiatzak 24, Mungia
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Maiatzak 24, Miarritze
Ruper Ordorika

Maiatzak 25, Elgeta
Bizardunak

Maiatzak 25, Atarrabia
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Maiatzak 31, Elgoibar
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Ekainak 2, Donostia
'Zetarako hegoak' antzeziana
Metrokoadroka sormen laborategia

Ekainak 7, Tuter
Anari eta Ruper Ordorika

Ekainak 7, Getxo
'Bi Arreba'
Andoni Egaña eta Xabier Lizaso

Ekainak 8, Altsasu
Gari

Ekainak 8, Zarautz
Bertso trama
Tramagilea: Josu Goikoetxea.
Bertsolariak: Uxue Alberdi, Andoni Egaña,
Amaia Agirre, Amets Arzallus.
Musika: Aitor Atxega

Ekainak 13, Hendaia
Eñaut Elorrieta

Ekainak 14, Santurtzi
Ruper Ordorika

Ekainak 14, Basauri
Bertso trama
Tramagilea: Josu Goikoetxea.
Bertsolariak: Arkaitz Estiballes, Miren
Amuriza, Jon Maia, Igor Elortza

Ekainak 15, Ondarroa
Joseba Tapia

Zertan ari da
BERRIA?
aurkezpena

BERRIAK
10 urte
bideoa

Jarraian
kultur
ekitaldia

Izan zaitez

berrialaguna

berria info
hamarnaka
kontatzekoak gara